



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

BIZKAIAN GAIGABEZIA  
DUTEN PERTSONEN  
PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO  
**PLANA.** 2010-2013







<b>SARRERA</b>	<b>5</b>
<b>1. KOMUNITATEAN PARTE HARTZEKO ETA BIZI KALITATEA EDUKITZEKO EREDURANTZ</b>	<b>9</b>
1. Esparru kontzeptuala eta estrategikoa	9
2. Erreferentziako esparru juridikoa eta zientifikoa	13
2.1. Esparru juridikoa eta eskubideak	13
2.2. Esparru teorikoa eta kontzeptuala	17
<b>2. GAIGABEZIA BIZKAIAN: FORU ERANTZUKIZUNEKO PRESTAZIO ETA ZERBITZUEN ERREALITATEA, BEHARRAK ETA ESKAINTZA</b>	<b>19</b>
1. Nortzuk dira gaigabezia duten pertsonak Bizkaian	19
2. Egungo beharren eta etorkizuneko ezaugarriak	29
2.1. Alderdi orokorrak	29
2.2. Berariazko beharrak foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuen sistemari uztartuta	31
3. Foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuen sistemako prestazioen egungo tipologia eta mapa gaigabezia duten pertsonentzat	38
<b>3. ANALISIAREN ONDORIO OROKORRAK ETA DIAGNOSTIKOA</b>	<b>41</b>
<b>4. ESTRATEGIA: KOMUNITATEAN PARTE HARTZEKO ETA BIZI KALITATEA EDUKITZEKO EREDURANTZ</b>	<b>45</b>
<b>5. HELBURUAK ETA JARDUNAK</b>	<b>47</b>
<b>A ardatza:</b> Bizitza autonomoa komunitatean, gizarteratzea eta parte-hartze aktiboa	48
<b>B ardatza:</b> Irigarritasun unibertsala, diseinua guztiontzat eta aukera berdintasuna	50
<b>C ardatza:</b> Gizarte zerbitzuen unibertsaltasuna eta zuzentasuna horiek eskuratzerakoan	53
<b>D ardatza:</b> Kalitatea eta Pertsonan oinarritutako plangintza	57
<b>E ardatza:</b> Elkarlana eta elkarrizketa hirugarren sektorearekin	60
<b>6. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA</b>	<b>63</b>
<b>I. ERANSKINA: FORU ERANTZUKIZUNEKO ZERBITZU ETA PRESTAZIO ZERRENDA, BIZKAIAN GAIGABEZIA DUTEN PERTSONENTZAT ETA HAIEN FAMILIENTZAT</b>	<b>65</b>
<b>II. ERANSKINA: GIZARTE EKINTZAKO ESKUALDEETAKO ZONA ETA UDALERRIAK</b>	<b>67</b>
<b>III. ERANSKINA: GARATUTAKO METODOLOGIA</b>	<b>69</b>
<b>IV. ERANSKINA: ERREFERENTZIA ITURRIAK</b>	<b>70</b>





## SARRERA

Bizkaiko Foru Aldundiak lurralde honetan gaigabezia duten pertsonekin hartutako konpromisoa haien eskubideak bermatzera eta haien bizi kalitatea hobetzera zuzendutako politikak eta jardunak bultzatu eta garatzearen bitartez gauzatu da azken urteotan. Ildo horretatik jarraituz, Bizkaiko Gizarte Ekintza Sailaren Gizarte Ekintzako II. Plan Estrategikoa 2008-2011 delakoak konpromiso berezia hartzen du pertsona hauen eta haien senideen arreta eta sustapenarekiko. Izan ere, Sailaren Betebeharrak argi eta garbi adierazten du bizi kalitatearen hobekuntzarekin eta herritarren ongizatearekin hartutako konpromisoa. Hori zailtasun gehien dituzten pertsonen bizi-erata duina edukitzean, beren eskubide guztiez gozatzeko eta gizartean erabateko parte-hartzea edukitzean lagunduko dieten zerbitzuak eta baliabideak ematearen eta bermatzearen bitartez egingo litzateke. Horretarako, politika eta ekintza integratzaileak eta normalizatzaileak garatuko ditu, horien bitartez posible izan dadin gizarte barneratzaile bat edukitzea eta bertan pertsona guztien parte-hartzea posible izatea. Halaber, helburuen artean gaigabezia duten pertsona guztiak atentatzearen aldeko apustua egongo litzateke, horrelako talde heterogeneo eta aniztu bati babesa ematearen berezitasunak eta berriak behar aintzat hartuta beti. Gainera, aintzat hartu behar da ere ezaugarritzat dutela geroz eta konplexutasun handiagoa azaltzea, beren bizi kalitateko eta autonomia pertsonalerako prestazio eta baliabideen eskatzaile direlako.

Plangintza ekimen hau honela planteatzen da: gaigabeziaren fenomenoaren hainbat faktore biltzen dituen errealitate bat da. Batetik, pertsonak bere jarduerak garatzeko eta parte hartzeko dituen mugak daude. Bestetik, beti iragarria izaten ez den ingurune bateko oztupoak egongo lirateke, aukera berdintasun eraginkorra ahalbidetzeko baldintzen eskasia eta komunitatean bizitzea autonomoa eta independentea garatzeko eta normalkuntzaren aldetik erabat gizarteratzeko zailtasunak. Izan ere, Plan honen bitartez foru erantzukizuneko prestazio eskaintza eta gizarte zerbitzuen erantzuna hobetu nahi dira. Aitzitik, gizarte bizkaitarra eraldatzeko helburua ere bada, funtsezkoak diren agenteen esku-hartzea bultzatuz sentsibilizazio ekintzen, administrazio publikoekin eta gizarte agenteekin hitz egitearen eta bereizkeria eta ahultasun adierazgarriko egoerak identifikatzearen bitartez besteak beste. Horrela, autonomia pertsonalerako eta parte-hartzerako, irisgarritasun unibertsalerako eta aukera berdintasunerako baldintza hobekak lortuko lirateke.

Zentzu horretan bertan, horren guztiaren hartzailerik Bizkaian gaigabezia duten pertsona guztiak eta haien familiak dira: bai sistemaren aldetik babes espezializatua edo foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuen sarea behar dutenak<sup>1</sup>, bai horrelako babesak behar edota eskatzen ez dituztenak. Aitzitik, haien autonomia pertsona eraginkorrerako, garapenerako eta berdintasunerako beharrezkoa da jardun adierazgarriak eta agente anitzen esku-hartzea garatzea, horren bitartez gizarte eraldatze aldera aukera berdintasuneko kultura batetarrantz.

<sup>1</sup> Plan honen testuinguruan, iforu erantzukizuneko gizarte zerbitzuen sistema edo sarei gisa ulertzen dugu foru erantzukizuneko den gizarte laguntza, prestazio eta zerbitzu multzoa, elkarrekiko independenteak. Horiek baliabideen sare antolatua, malgua eta pertsonalizatua eratzen dute, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari integratuta eta, eremu honetan, gaigabezia duten pertsonen orientatuta beren bizi-erata osoan zehar.



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

Plan hau foru erantzukizunaren esparruan oinarritzen da eta, batez ere, gizarte zerbitzuen gaian eskumendun den sailaren erantzukizun esparruan.

Bertan finkatzen diren jardunak, orokorrean, pertsona guztiei zuzentzen zaizkie, haien aniztasun funtzionala eta babes beharra edozein dela ere. Sailak gizarte zerbitzuen gaian garatutako berezko jardunei dagokienez, zehaztaperen maila Õabartuago bat honela egingo da: eremu honetan berezko Murtzo bat landu eta aplikatzearen bitartez (I. Eranskinean aurreikusitako prestazio zerrenda garatuz) nahiz Sistemako prestazioen programazio sektorialatu eta funtzional egoki bat egiteko metodologiaren bitartez (bi jardun horiek Planean aurreikusi dira). Edozein kasutan, elementu horien garapena Eusko Jaurlaritzak onetsitako Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen aplikaziorako esparru arautzailearen arabera egin beharko da. Batez ere Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari eta EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoari dagokienez.

Bestalde, Bizkaian gaigabezia duten pertsonen arretan eta sustapenean egondako aurrerapenen arrazoiak gizarte ekimeneko entitateen eta Administrazio konprometitu baten arteko elkarlan eta esfortzu konbinatua dira, erantzukizun publikoko funtzioa dagoelako talde honen ongizatearengatik eta bizi kalitatearengatik. Aniztasun funtzionala duten pertsonentzako eta haien familientzako babes egokien, behar bestekoen eta kalitatezkoen babes sare integral bat eraiki, zabaldu eta hobetzea ez zatekeen posible izango, eta etorkizunean ere ez da izango, beren beharren ordezkari diren eta behar horiek atenditzen dituzten gizarte ekimeneko entitateen laguntzarik gabe.

Hain zuzen ere, ugariak dira eremu honetan gizarte ekimeneko entitateen esku-hartzeari balioa eransten dioten alderdiak. Haien ibilbideak eta jardun multzoak, ordezkartzatik eta elkarrizketatik hasi eta taldearen eskubideen, haien defentsa aktiboaren edo gizarte bizkaitarraren sentibilizazio eta dinamizazioaren sustapenetik igarotzen dira eta erantzukizun publikoko zerbitzu gisa pixkanaka antolatzen joan diren zerbitzuak emateraino iristen.

Edo berritzeko, etengabe hobetzeko eta talde heterogeneo bati laguntzeko berariazko beharrei egokitzeko gaitasuna nahiz kalitatea ulertzeko modua: bizi kalitatearen ereduak posible egiten duten kudeaketaren kalitateak eta konpromiso etikotik.

Izan ere, Plan hau lantzeko prozesua taldearen ordezkari diren erakunde ezberdinen parte-hartzearekin egin da (III. Eranskinean jaso den bezala). Honen edukiak, garatzen den idatz-zati ezberdinetan, haien ekarpenak aintzat hartzen ditu eta haietaz elikatzen da hurrengo alderdietan: sustapeneko eta arretako Eredu bat identifikatzea, haren esparru kontzeptuala eta estrategikoa, egungo beharrak eta gaigabezia duten pertsonen eta haien familien baitan sortzen doazen beharrak identifikatzea eta prestazioen egungo mapa eta tipologia hobetzeko proposamen eta planteamendu ezberdinak, eskuratzeko sistema eta Administrazioarekiko harreman juridikoko ereduak.

Beste elementu batzuen artean, parte-hartze prozesu honek aukera eman du gaigabezia duten pertsonen eta haien familien arreta eta sustapenerako erreferentzia eredu



## SARRERA

jakin baten gakoak identifikatu eta baliozkotzeko Bizkaian, datozen urteetan, aurrerantz atera nahi dugun erabateko ezarpenean eta garapenean. Horretarako, sisteman funtsezko diren agente guztien parte-hartzea behar dugu: Komunitatean Parte Hartzeko eta Bizi Kalitatea Edukitzeko Eredua.

Hemen aurkezten den planak Eredu honen aldeko apustua egiten du, datozen urteetan arretaren eremuan eta gaigabezia duten pertsonen sustapenarenean aurrerantz egingo den bidea orientatuz. Hala eta guztiz ere, eredu hau nahitaez pixkanaka finkatzeak, benetako kultura aldaketa eta arreta zerbitzuena dakarren heinean (zerbitzuak, prozedurak, baliabideak...), ibilbide luzeko proiektu anbizioduna eratzen du eta horrek, noski, gainditu egiten du Plan honen indarraldirako finkatu den aldia.

Eredu honen gakoak, gintera, oinarri juridiko, zientifiko eta kontzeptual sendo batzuen gainean planteatzen dira. Bestek beste, NBEk gaigabezia duten pertsonen eskubideei buruz egindako Konbentzioaren eta Funtzionamenduaren, Gaigabeziaren eta Osasunaren Nazioarteko Saillkapenaren (OMEren 2001eko FNS) gainean.

Planaren helburua gaigabezia duten pertsonen eta haien familien arretan eta sustapenean Bizkaian parte hartzen duten pertsonen, erakundeen eta entitateen jarduna hobetzea da, pixkanaka Komunitatean Parte Hartzeko eta Bizi Kalitatea Edukitzeko Eredurantz orientatuz:

- Bai gizarte bizkaitarrean funtsezko diren agente guztien pixkanakako parte-hartzea lortzeko, haien esku-hartzea beharrezkoa izateagatik kultura aldatetako eta gizarte eraldaketako prozesu batean aniztasuna barneratzen duen gizarte batetaranzko bidean.
- Bai etengabeko hobekuntzan, berdintasunean, unibertsaltasunean, kalitatean eta foru erantzukizuneko Gizarte Zerbitzuak egungo beharrekiko eta pertsona hauei sortzen zaizkien behar berriekiko egokitzapenean aurrerantz egiteko.

Horrekin guztiarekin, agiri honek zera jasotzen du beharren azterketa eta diagnostikoa eta baliabideen egungo eskaintza egin ondoren:

Komunitatean Parte Hartzeko eta Bizi Kalitatea Edukitzeko Eredua lortzeko bidean aurrerantz egiteko Estrategia: bai parte hartzeko eta komunitatean bizitza autonomoa edukitzeko faktoreetan, barneratzean eta irisgarritasun unibertsalean eragina edukita guztiontzako diseinuaren eta aukera berdintasunaren bitartez, bai foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuen erantzun sistema hobetzeko berdintasuna, unibertsaltasuna, kalitatea eta pertsonan oinarritutako plangintza oinarritzat izanez. Hori guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintzako Plan Estrategikoaren Eginkizunarekin, Balioekin eta Ikuspegiarekin nahiz haren lehentasunezko ildoekin bat etorritik.

Hori lortzera zuzendutako Helburuak eta Jardunak, horiek Plan honen ezarpenaldian (2010-2013) lortu diren ebaluatzeko adierazleak zehaztearekin batera.







## 1. KOMUNITATEAN PARTE HARTZEKO ETA BIZI KALITATEA EDUKITZEKO EREDURANTZ

Jarraian, Komunitatean Parte Hartzeko eta Bizi Kalitatea Edukitzeko Ereduaren esparru kontzeptuala eta estrategikoa aurkeztuko da eta baita Eredu horren oinarrian egongo den esparru juridikoa, politikoa eta zientifikoa ere.

### 1. ESPARRU KONTZEPTUALA ETA ESTRATEGIKOA

Komunitatean Parte Hartzeko eta Bizi Kalitatea Edukitzeko Eredua gaigabezia duten pertsonen eta haien familien arreta eta sustapenerako erreferentzia eredia da, Bizkaian, datozen urteetan, aurrerantz atera nahi dugun erabateko ezarpenean eta garapenean. Horretarako, sisteman funtsezko diren agente guztien parte-hartzea behar dugu.

Eredu hau Bizkaiko gaigabeziaren arretarako sektoreko gizarte ekimeneko entitateak egiten aritu diren ibilbidetik bertatik sortzen da. Gaigabezia duten pertsonen eta haien familien zerbitzuak ematen dizkieten, haiek atenditzen dituzten eta ordezkatzeko dituzten erakundeek lortutako aurrerapenetatik elikatzen da, adibidez kalitate ereditik (bizi kalitatearen eta kudeaketa eta etika kalitatearen osagaiekin), konpromiso etikotik eta eredu horrekin koherentzia duten balioetatik, bizitza independenteko mugimendutik, autonomia pertsonaletik eta komunitatearen ingurunean garatzen diren plangintzetik, eta abarretatik.

Hemen planteatu den esparru kontzeptualak eta estrategikoak gaigabezia ulertzeko moduan aldaketa prozesuaren oinarriak finkatu nahi ditu eta, ondorioz, baita babes sistema egoki, integral eta behar bestekoa antolatzen eta garatzen diren eredu erantzukizuneko gizarte zerbitzuen eremuaren barruan. Hori gai izan beharko da malgutasunez erantzuteko familia eta pertsona bakoitzaren gizarte beharrei, haien aniztasun funtzionala gorabehera eta aintzat hartuta, baita ere, beraz, haien gaitasunak zeintzuk diren.

Jabetzen gara aldaketa prozesu honek gaitasun egiten duela Planaren beraren indaraldia; hala ere, uste dugu Eredua gain hartzeak aukera ematen duela sistemaren eraldaketa orientatzeko pertsonan geroz eta gehiago oinarritzen den eskema batetarantz. Eskema horren izaera komunitatean parte hartzeko eta bizi kalitatea edukitzeko izango da.

Zehazki, Plan honen denbora esparruan, erreferentziako Eredu honek aukera emango digu Estrategia, Helburu eta Jardun egokiak finkatu eta garatzeko, pixkanaka gizarte eraldaketa bultzatzeko aukera berdintasuneko eta irisgarritasun unibertsaleko kultura batetarantz eta, baita ere, foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuek gaigabezia duten pertsonen eta haien senideei emandako erantzun sistema hobetu eta egokitzeko.



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

Haren ikuspegia, xedea, premisak eta aldaketa eta eraldaketako ardatz estrategikoak, Eredu hau eraikitzeko oinarri izango direnak, hauek dira:

**Ikuspegia:**

Plangintza honen ikuspegi nagusia eta ibilbide luzeko orientazio orokorra hau da: pertsonok eta gizarteak autonomia pertsonaleko eta bizitza independenteko kultura baterantz egiten dugula lortzea komunitatean, horren bitartez pertsona guztiak, inolako bazterkeria edota bereizkeriarik gabe, gai izan daitezen beren aukeraketak egiteko eta bizi kalitateko eta autoerrealizazioko baldintza ezin hobetan bizitzeko.

**Xedea:**

Zehazkiago, plangintza egituratu egiten da estrategia, helburu eta jardun multzo batean eta horiek aukera eman behar dute datozen lau urteetan modu adierazgarrian hobetzeko gaigabezia duten pertsonen eta haien familiei zuzendutako foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuen sistemaren estaldura, kalitatea eta eraginkortasuna eta baita xede nagusiaren lorpenean aurrerantz egitea ahalbidetuko duten gizarte eraldaketako zeharkako eremuetan guztietan eragina edukitzeko gaitasuna zabaltzeko ere: alegia, gaigabezia duten pertsonen eta haien familiek komunitatean duten parte-hartzean eta bizi kalitatean.


Xede honen ikuspegiranzko eta lorpeneranzko orientazioa funtsezko premisak dira gaigabezia duten pertsonen zera lor dezaten:

- bizi kalitatea,
- gogobetetasun pertsonala eremu guztietan,
- beren bizi proiektu pertsonala gauzatzea.

Horretarako, beharrezkoa da:

- Pertsonen babesa ematea ahalik eta gehien gara ditzaten komunitatean autonomia pertsonala edukitzeko behar izan ditzaketen gaitasunak.
- Inguruneak eraldatzea haien irisgarritasun unibertsala bermatuz eremu guztietan (hesiak ezabatzea eta guztiontzako diseinuak egitea): arkitektura, instalazioak eta gailuak; komunikazioa; ulermena eta jarrerak.

**1. DIAGRAMA. GIZARTE ZERBITZUEN SISTEMAREN JARDUN EREMUAK (ETA BAITA BESTE GIZARTE SISTEMA ETA AGENTE BATZUENA ERE)**





## KOMUNITATEAN PARTE HARTZEKO ETA BIZI KALITATEA EDUKITZEKO EREDURANTZ

- Aukera berdintasun eraginkorra sustatu eta erraztea, horretarako ekintza positiboko neurri zehatzak hartuz eta bereizkeria egoerak ezabatuz.
- Pertsona eta erakunde adierazgarrien parte-hartze aktiboa sustatzea.
- Eskura dauden laguntzak (baliabideak, zerbitzuak, baldintzak) eta erakundeak egokitzea, paradigma berri honekiko koherentzia edukiz: Kalitate eredua (bizi kalitatea, kudeaketa kalitatea eta etika).

Elementu hauetako bakoitzaren gainean eragina edukitzeak exijitu egiten du kultura aldaketako eta gizarte eraldaketako beharrezko prozesu bat garatzea eta horrek sisteman esku hartzen duten oinarrizko agente guztien esku-hartzea behar du: gaigabezia duten pertsonak berak eta haien familiak, haien ordezkari diren edota laguntza ematen dieten entitateak, administrazio eta botere publikoak, profesionalak, boluntarioak, beste arreta sistema batzuk, gizarte komunikabideak, enpresak, gizarte agenteak eta gizarte bizkaitarra orokorrean.

Aldaketa prozesu horretan gizarte eraldaketako bost ardatz estrategiko identifikatzen ditugu:

- **Zeharkako izaera duten bi ardatzek**, foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuen sistemak gizarte bizkaitar osoari zuzendu beharrek jardunak hartuko dituzte. Oinarrizko premisa izango da kultura aldaketarako beharrezkoa dela gizartea (erakundeak, administrazioak eta botere publikoak, agente ekonomikoak eta gizarte agenteak, enpresak, ikastetxeak, osasunaren alorrekoak, eta abar) aniztasuna barneratzearen alde eta aldaketa prozesuan eraginkortasunez esku harraraztearen alde jartzea:
  - A. Bizitza autonomoa komunitatean, gizarteratzea eta parte-hartze aktiboa:** Bizkaian gaigabezia duten pertsonen ahalik eta autonomia handiena, gizarteratzea eta komunitatean parte-hartze aktiboa lortzeko baldintza egokiak sustatzea.
  - B. Irisgarritasun unibertsala, guztiontzako diseinua eta aukera berdintasuna:** Irisgarritasun unibertsal eraginkorra eta guztiontzako diseinua sustatzea, eta baita aukera berdintasuna eta tratu egokia eta bereizkeriarik gabekoa ere gaigabezia duten pertsonetarako.
- **Barne izaerako hiru ardatz**, foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuen sisteman oinarrituta eta haien etengabeko hobekuntzarantz orientatuta eta funtsezko agente guztien esku-hartzea edukiz (Gizarte Ekintza Saila bera, gaigabezia duten pertsonak eta haien familiak, haien ordezkari diren edota haiei zerbitzuak ematen dizkieten entitateak, profesionalak, boluntarioak):
  - C. Gizarte zerbitzuen unibertsaltasuna eta zuzentasuna horiek eskuratzeko:** Unibertsaltasuna eta gaigabezia duten pertsonen eta haien familiei zuzendutako foru erantzukizuneko prestazio eta zerbitzuak berdintasun baldintzetan eskuratzeko behar besteko baldintzak eta baldintza egokiak sustatzea.



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

**D. Kalitatea eta pertsonan oinarritutako plangintza:**

Komunitatean parte hartzeko eta bizi kalitatea edukitzeko ereduaren ezarpean aurrerantz egitea, eta baita sistemaren esku-hartze ereduaren barruan pertsonan oinarritutako plangintza metodologian ere.

**E. Elkarlana eta elkarrizketa hirugarren sektorearekin:**

Gizarte ekimeneko entitateen elkarlana bultzatzea foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuen sistemaren orientazio eta hedapenean (zerbitzuak ematea, plangintza, berrikuntza eta etengabeko hobekuntza...) eta elkarrizketa zibila eta gizarte ekimeneko entitateen interes orokorreko bestelako jardunak ere bultzatzea.

Gizarte baliabideen sare egokia, behar bestekoa, osoa eta integrala zabaltzeko bidean planteatzen diren erronkek, komunitatean parte hartzeko eta bizi kalitatea edukitzeko Ereduarekin koherenteak, agente ezberdinen apustua eta, ondorioz, esku-hartzea behar dute. Zehazki, hurrengoetarantz egiten jarraitzea behar izango da:

- Herritar multzo aktiboa eta gizarte ekimenak sustatzen dituen izatea.
- Sektorearen profesionalizazioa.
- Administrazio publiko erantzulea eta herritarrei eskubide eta aukera berdintasuna bermatzeko garaian betetzen duen paperaren garrantziaz jabetzen dena.
- Boluntario multzo bizia.
- Gaigabezia duten pertsonen eta haien familien pixkanakako jabeak, beren buruak eskubideak eta betebeharrak dituzten subjektu gisa ikusiz aniztasunaren balioa gizarte motor gisa integratzen doan gizarte testuinguru baten barruan

Noski, zabalkunde horrekin batera elkarlanaren aldeko apustu politikoa eta gizarte ekimena mantentzea joan behar dira, eta baita hobekuntzak mantentzea ere, bai zerbitzuetan, bai horiek eusteko dauden administrazio prozesuetan ere.

Gaigabezia duten pertsonen emandako arreta aldatzeko garaian eredu batek edukiko duen trakzio boterea agente guztiek hark finkatutako esparruan lan egitearen alde egiten duten apustuaren mendekoa izango da. Hortik abiatuta, uste dugu garrantzitsua dela Bizkaian gaigabezia duten pertsonen parte-hartzerako eta bizi kalitaterako Planean erreferentzia esparru bat islatu ahal izatea eta horrek foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuen sistema eta bere agenteak trakzionatzea, bizi kalitateko eta pertsonan oinarritutako plangintzako irizpideetarantz, betiere, komunitatean parte hartzeko eta bizi kalitatea edukitzeko Eredu baten barruan.

Jarraian datorren diagramak sistemako agenteen artean behar den elkarrekintza adierazi nahi du, eredu hau barneratzeko lanean aurrerantz egiteko. Elkarrekintza hori lau dimentsiotan egituratzen da:

**Eredua:** Gizarte eraldaketako zeharkako estrategia multzoa eta komunitatean parte hartzeko eta bizi kalitatea edukitzeko ikuspegia biltzen ditu.




**KOMUNITATEAN PARTE HARTZEKO ETA BIZI KALITATEA EDUKITZEKO EREDURANTZ**

**Sistema:** Ulertu egiten du hirugarren sektorea eta administrazio publikoa ez direla konpartimentu iragazgaitzak, baizik eta elkarren artean erlazionatuta dauden sistemak. Horiek, hainbat interfazeen bitartez, koordinatu egiten dira eta elkarlanean aritzen dira pertsonentzako babes sistemak sortzeko eta gizarte aberatsa eta plurala sortzeko.

**Gizartea:** Aukera berdintasuneko eta aniztasuneko kultura bat sortzeko behar den gizarte aldaketarantz orientatutako jarduera biltzen du.

**Pertsona:** Gaigabezia duten pertsonen eta haien familiei orientatutako zerbitzu eta prestazio multzoa hartzen du eta, beren gaitasunen tamainan, beren bizi proiektu propioa ere gain hartzen du.

**2. DIAGRAMA. FORU ERANTZUKIZUNEN GIZARTE ZERBITZUEN SISTEMAREN AGENTE, EREDU ETA ELKARREKINTZAK**



**2. ERREFERENTZIAKO ESPARRU JURIDIKOA ETA ZIENTIFIKOA**

Gizarte Ekintza Sailaren eginbeharrak, balioez eta ikuspegiak eta Gizarte Ekintzako Plan Estrategikoak (2008-2011) gain hartutako konpromisoez gain gaigabeziaren gain, Plan honek oinarri eta erreferentzia gisa ditu bai aplikatu beharreko esparru juridikoa, bai gaigabeziaren esparru teorikoko eta zientifikoko ikusmolde berriak.

**2.1. Esparru juridikoa eta eskubideak**

Ugariak dira Bizkaian aplikatu beharreko esparru arautzaileko eta esparru politikoko ekimenak; horiek aurrerapauso garrantzitsuak sartzen dituzte gaigabezia duten pertsonen eskubideen aitortzean eta bermean, haien benetako aukera berdintasuna, bereizkeria eza



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

eta irisgarritasun unibertsala, haien gizarteratzea, autonomia pertsonala, bizitza independentea, parte-hartze aktiboa eta bizitza politikoko, ekonomikoko, kultureko eta sozialeko parte-hartzea bermatzera zuzenduta.

Azpimarragarriena da arau hauek ez direla jada mugatzen asmo adierazpenak biltzera eta, aldiz, xedapenak eraginkorrek izateko neurriak ere sartzen dira: bereizkeriaren aurkako neurriak, ekintza positiboko neurriak, talde honen baldintza edo zailtasun pertsonalen gainean aldi berean jardungo duten esku-hartze estrategiak bermatzera zuzendutako sustapen eta babes neurriak, eta, batez ere, gizartean bertan, batez besteko pertsonaren ereduari jarraiki pentsatu den gizartean, alegia, gaigabezia duten herritarren erabateko parte-hartzearen aurka egiten duten oztopo eta baldintza mugatzaileen gainean jardungo dutenak.

Zehazki, hurrengo xedapenak dira aintzat hartzen direnak:

- **Gaigabezia duten Pertsonen Eskubideen gaineko NBERen Konbentzioa.** Horrek, besteak beste, onartu egiten du garrantzitsua dela gaigabezia duten pertsonentzat autonomia edukitzea eta bakarkako askatasuna edukitzea. Hortxe sartuko litzateke ere beren erabakiak hartzeko askatasuna. Bertan, aipamen ezberdinak egiten zaizkio Aukera Berdintasunari eta Autonomia Pertsonalari artikuluen barruan:
  - **3.a) artikulua**k, Konbentzio hau ekarri duten printzipioen artean, zera biltzen du: *duintasunari zor zaion errespetua, gizabanakoen autonomia -norberak bere erabakiak hartzeko askatasuna barne- eta pertsonen askatasuna.*
  - **19. artikulua**k (askatasunez bizitzeko eskubidea eta komunitatean sartuak izatekoa) zera xedatzen du: *Konbentzio honetan alderdi diren Estatuak onartu egiten dute gaigabezia duten pertsona guztiek eskubidea dutela baldintza berdinetan bizitzeko komunitatean, gainerakoek dituzten aukera berdinekin, eta neurri eraginkorrek eta egokiak hartuko dituzte eskubide horretaz erabat goza dezaten gaigabezia duten pertsonak eta haiek komunitatean erabat sartu eta parte har dezaten. Besteak beste, horrek esan nahi du gaigabezia duten pertsonak aukera eduki behar dutela etxetik etxeko laguntza zerbitzu, egoitzako zerbitzu eta komunitateari laguntzeko bestelako zerbitzu aniztasuna eskuratzeko, haien biziraupena errazteko eta komunitatean sartzeko eta haien isolamendua eta gizarte bazterkeria saihesteko behar den laguntza pertsonal guztia barne.*
- **Europar Batasunaren Kontseiluaren eta Estatu Kideetako Gobernuen ordezkarien ebazpena**, 2008ko martxoaren 17an Kontseiluan bildu izan ondoren. Ebazpena Europar Batasunean gaigabezia duten pertsonen egoerari buruzkoa da (2008/C 75/01). Bertan, finkatu egiten da Estatu kideek bermatu egin behar dutela gaigabezia duten pertsonak beren giza eskubideez erabat gozaten dutela. Besteak beste, honela:



## KOMUNITATEAN PARTE HARTZEKO ETA BIZI KALITATEA EDUKITZEKO EREDURANTZ

- *Gaigabezia duten pertsonen askatasunez bizitzea, komunitatean integratzea eta laguntza zerbitzuak eskuratzeko eta kalitatezko laguntza edukitzea ahalik eta gehien ahalbidetuko dieten neurriak hartzea.*
- *Estatu kideei eta tokiko eta eskualdeko komunitateei babes indartua ematea erakundeetatik kanpo ateratzeko prozesuan, hori gaigabezia duten pertsonentzat interesgarria izan daitekeenean.*

Gainera, zera xedatzen du: *irisgarritasuna aurretiazko baldintza bat da autonomiarako, gizarteratzeko eta parte-hartzerako, eta aukera ematen du gaigabezia duten pertsonen giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak balia ditzaten.*

Bestalde, zera finkatzen du: *gaigabezia duten pertsona guztiek gizarteratzeko dituzten eskubideak sustatu beharko lirake eta, hala dagokionean, laguntzako erakundeak pixkanaka ordezkatzeko joan oinarri komunitarioa duten beste hautabide batzuegatik.*

- **51/2003 Legea, gaigabezia duten pertsonen aukera berdintasunari, bereizkeria ezari eta irisgarritasun unibertsalari eta hori garatzeko araudiari buruzkoa:** Neurriak finkatzen ditu bizitza politikoaren, ekonomikoaren, kulturalaren eta sozialaren esparru guztietan gaigabezia duten pertsonen aukera berdintasunerako eskubideak bermatzeko eta eraginkor bihurtzeko, horretarako esku hartzeko estrategia bikoitza erantsiz: bereizkeriaren aurka borrokatzeko estrategia eta irisgarritasun unibertsalarena. Zehazki, bereizkeriaren aurkako neurriak, gaigabezia duten pertsonen bizitza politikoko, ekonomikoko, kultureko eta sozialeko eremuetan erabat sartzeko eta horietan parte hartzeko dituzten desabantailak edo zailtasun bereziak prebenitzeko edo orekatzeko ekintza positiboko neurriak eta sustapen eta babes neurriak.

Lege hori, besteak beste, bizitza askearen, normalizazioaren, irisgarritasun unibertsalaren, guztiontzako diseinuaren, elkarrizketa zibilaren eta gaigabeziaren alorreko politiken zeharkakotasunaren printzipioetan oinarritzen da (2. art.). Hain zuzen ere:

- **Bizitza independentea definitzen du:** *Gaigabezia duen pertsonak bere existentziaren gaineko erabaki ahalmena baliatzen duen egoera eta bere komunitateko bizitzan parte-hartze aktiboa duen egoera, nortasunaren garapen askearen eskubideari jarraiki. (2.a art.).*
- **Aukera berdintasuna definitzen du honela:** *gaigabeziaren batean oinarrituriko bereizkeriarik ez egotea (ez zuzenekoa, ez zeharkakoa) eta gaigabeziaren bat duen pertsonaren arazoak saihestu edo orekatzea zuzendutako ekintza positiboko neurriak hartzea, bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta gizartekoan erabateko parte-hartzea eduki ahal izan dezan (1.1. art.).*



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

- Irisgarritasun unibertsala honela definitzen du: *inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek nahiz objektuek edo tresnek, lana-besek eta gailuek bete beharreko baldintza pertsona guztientzat, segurtasun eta erosotasun baldintzetan eta ahalik eta autonomia eta naturaltasun handienarekin, ulergarriak, erabilgarriak eta praktikagarriak izan daitezten. "Guztionezko diseinuaren" estrategia finkatzen da, eta aurkeztu behar diren arazoizko egokitzapen guztien kaltetan izan gabe ulertzen da (2.c art.).*
- 39/2006 Legea, autonomia pertsonala eta mendetasun egoeran dauden pertsonen arreta ematekoa. Printzipio gisa finkatzen du (3. artikuluan) baldintza zehatzak sustatzea, mendetasun egoeran dauden pertsonen bizitza garatu ahal izan dezaten ahalik eta autonomia maila altuenarekin.

Gainera, 13. artikuluan (helburuak eta mendetasun prestazioak), zera aitortzen du: *"mendetasun egoeran dauden pertsonen arreta ematea eta haien autonomia pertsonala sustatzea bizi kalitate hobea eta autonomia pertsonala lortzerantz orientatu beharko da aukera berdintasun eraginkorreko esparru batean, hurrengo helburuekin bat etorrira:*

- *Existentzia autonomoa erraztea bere ohiko ingurunean, nahi duen denbora guztian eta posible den denbora guztian.*
- *Bizitza pertsonaleko, familiako bizitzako eta gizarteko bizitzako eremu guztietan tratu duina ematea, komunitatearen bizitzan aktiboki sartzen dela erraztuz".*
- Euskadiko Autonomia Estatutuak, 9.2 artikuluan, zera finkatzen du: *Euskal herrigintzek, beren eskumenen esparruan, herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilera egokia zaindu eta bermatuko dute, bizi- eta lan-baldintzen hobekuntzaren aldeko politika bultzatuko dute bereziki, enplegua gehitzeko eta ekonomiaren oreka sustatzeko neurri lagungarriak hartuko dituzte, gizakien eta gizataldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetako izan daitezten baldintzak eragitera eta oztopoak desagerraraztera bideratutako neurri oro hartuko dute eta Euskal Herriko politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte-alorretako bizitzan herritar guztien partaidetza bideratuko dute.*
- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, 6.1 artikuluan zera finkatzen du: *herritar guztien gizarte-ongizatea sustatzea da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua. Horretarako, beste sistema eta politika publiko batzuekin koordinatuta arituko da, haiekin lankidetzan. Honako hauek ditu funtsezko eginkizunak: pertsonen autonomia sustatzea eta mendetasun-egoerak pertsonen eta familiei eragiten dizkieten beharrezkoen aurrea hartu eta erantzutea (a) idatz zatia.*

Gainera, funtzionamenduan komunitatearen ikuspegia erreferentzia gisa edukiko duen arreta eta esku-hartze ereduaren aldeko apustua egiten du, arretarekiko hurbila dena (8. art.). Horretarako, besteak beste:





## KOMUNITATEAN PARTE HARTZEKO ETA BIZI KALITATEA EDUKITZEKO EREDURANTZ

- *Pertsoneri arreta beren ohiko ingurunean emateko modua eskainiko du, ahal dela beren bizitokian, eta ohiko bizilekuan jarraitzeko modurik ez dutenean, beren ohiko ingurunearen ordezkot egokiak aurkitu beharko dira, neurriagatik edo hurbil egoteagatik egokiak diren egoitza ordezkotak, alegia (2. idatz-zatia).*
- *Kasu bakoitzerako egokia den esku-hartzea diseinatuko du, beharrianak ebaluatuz arreta pertsonalizatuko plan baten esparruaren barruan; plan hori, arreta-ibilbideen jarraitutasuna eta koherentzia bermatzearen, erabiltzailearen parte-hartzearekin egingo da eta ebaluazioko eta berrikuspen aldizkako mekanismoak jasoko ditu plana pertsonen beharriaz egokitzen zaien jakiteko (3. idatz-zatia).*

### 2.2. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

Komunitatean Parte Hartzeko eta Bizi Kalitatea Edukitzeko Eredua oinarritu egiten da ere Funtzionamenduaren, Gaigabeziaren eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapenak –OMEren 2001eko FNS– finkatzen duen gaigabeziaren esparru teoriko eta kontzeptual berrian, NBEren Gaigabezia duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioak eranstean duen gizarte eta aniztasun ereduan eta Bizi Kalitatearen eta Pertsonan Oinarrituriko Plangintzaren ereduan oinarritzen den esku-hartze paradigma berrian.

Hori guztia ezgaitasuna duten pertsonak mugitzen diren ingurune hurbila eta komunitatearena eraldatzeko beharretik nahiz gizarte osoan aukera berdintasuneko kulturaren aurrerantz egitetik ulertuta, eta baita beharrezko laguntza edukitzeko beharretik ere ahalik eta gehien beren gaitasunak bultzatzea lortzeko autonomiarantzko, gizarteratzerantzko eta komunitatearen garapenerantzko bidean.

Bai NBEren gaigabezia duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioak, bai Funtzionamenduaren, Gaigabeziaren eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapenaren (OMEren 2001eko FNS) orientazioak aurrerantz egiten dute gaigabezia ulertzeko modu berri batetik eta gizarte eta aniztasun eredu berri bat lortzerantz. Eredu horretan pertsonen berezko gaitasunak bultzatzea eta haietaz jabetzea funtsezkoa da haien autonomia pertsonal maila altuagoa izateko eta bizitza independentea garatzeko komunitatearen ingurunean bere bizi ibilbidean zehar (laguntza edo errehabilitazio izaerako tradizio gehiagoko arreta ereduen aurrean).





## 2. GAIGABEZIA BIZKAIAN: FORU ERANTZUKIZUNEN PRESTAZIO ETA ZERBITZUEN ERREALitatea, BEHARRAK ETA ESKAINTZA

Kapitulu honek Bizkaian gaigabezia duten pertsonak, haiek lurraldean duten banaketa, haien familiak eta pertsona hartzaileak, beren beharren bilakaera eta foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuen sistemako prestazioen eta zerbitzuen egungo mapa identifikatzen eta ezaugarritzen ditu, horiei guztiei arreta eman eta haiek sustatze aldera.

### 1. NORTZUK DIRA GAIGABEZIA DUTEN PERTSONAK BIZKAIAN

Gaigabezien eta urritasunen Inkestaren eta Gaigabezia, Autonomia Pertsonala eta Mendetasun Egoeri buruzko 2008ko Inkestaren arabera, Estatistikako Institutu Nazionalarena (EDAD 2008)<sup>2</sup>, Euskal Autonomia Erkidegoan 184.145 pertsonak du gaigabezia 6 urtetik gorakoak diren horien artean (169.400 pertsonak etxebizitzetan eta 14.745 pertsonak zentroetan). Beste era batera esanda, euskal biztanleriaren % 8,54az ari gara<sup>3</sup>.

Bizkaian, 92.200 pertsonak du gaigabezia (6 urtetik gorakoak, etxebizitzetan –probintzien arabera xehatutako informaziorik ez dago eskura oraindik gaigabezia eduki eta zentroetan dauden horiei dagokienez–). Beste era batera esanda, biztanleriaren % 8,04ari buruz ari gara.

Aintzat hartu behar da Inkesta honek gaigabeziaren kontzeptu zabala erabiltzen duela: eguneroko bizitzako jarduerak egiteko muga garrantzitsuak ageri dituzten pertsonak dira, muga horiek urtebete baino luzeago jo badute edo jotzea aurreikusitako bada eta jatorria gaigabezia batean badago. Hau da, ez da gaigabezia ziurtagiria duten pertsonetara murrizten eta, aldiz, jarduterakoan mugak eta parte hartzerakoan murriztapenak dituzten bestelako pertsonak ere aintzat hartzen dira.

Edonola ere, Plan honen hartzaile den pertsona multzoa da, bere Estrategiaren, Helburuen eta Jardunen garapenaren orientazioaren hartzaile. Bereziki, A eta B ardatzen zeharkako izaeratik eta izaera eraldatzailetik (bizitza autonomoa komunitatean, gizarteratze eta parte-hartze aktiboa; eta Irisgarritasun unibertsala, guztiontzako diseinua eta aukera berdintasuna).

**1. TAULA. BIZKAIAN GAIGABEZIA DUTEN PERTSONAK (6 URTE ETA GEHIAGO) SEXUAREN ETA ADIN TARTEEN ARABERA MILAKA PERTSONETAN**

ADIN TARTEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
6tik 44ra	7,9	5,1	13,0
45etik 64ra	10,8	13,7	24,5
65etik 79ra	10,9	16,6	27,5
80 eta +	7,5	19,7	27,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>37,1</b>	<b>55,1</b>	<b>92,2</b>

*Iturria:* Estatistikako Institutu Nazionala. 2008 EDAD.

<sup>2</sup> Gaigabeziari, Autonomia Pertsonalari eta Mendetasun Egoeri buruzko Inkesta, 2008. Etxebizitzaren inguruneari zuzendutako inkesta.

<sup>3</sup> Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriari buruzko datuetatik abiatuta 2008an (Erroldaren estatistika ustiapena. Ustiapena 2008ko urtarrilaren 1ean. 2009ko urtarrilaren 13an argitaratutako aurrerapena): 2.157.112 biztanle Euskal Autonomia Erkidegoan.



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**


D eta E ardatzen ikuspegitik (horiek dira foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuen sistema etengabe hobetzera zuzendutako ardatzak: Berdintasuna eta unibertsaltasuna gizarte zerbitzuetan eta Kalitatea eta pertsonan oinarritutako plangintza), Planaren hartzaila izango diren pertsonak identifikatzeko beharrezkoa da gaigabezia administrazioak aitortuta duten pertsonak aintzat hartzea, kontuan hartuz, betiere, haien zati garrantzitsu bat Sistemako prestazioen erabiltzaile edo eskatzaile (egun edo etorkizunean) izango dela.

Gizarte Ekintza Sailaren 2010eko datuak aintzat hartuta, Bizkaian 64.257 pertsona dago gaigabeziarekin. Horietatik 61.043k du gaigabezia % 33an edo gehiagoan aitortua.

Pertsona horien banaketa Gizarte Ekintzako Eskualdeka eginez gero, Gizarte Ekintza Sailak erabiltzen duen lurralde sektorizazioa da kontuan hartzen dena. Horrek Bizkaiko zazpi lurraldeak banatzen ditu:

**1. IRUDIA. GIZARTE EKINTZA ESKUALDEAK. BIZKAIA.**

1. BILBO
2. EZKERRALDEA- ENKARTERRIAK  
(Ezkerraldea, Barakaldo, Meatzaldea eta Enkarterriak)
3. IBAIZABAL-NERBIOI  
(Durangaldea, Arratia, Basauri-Etxabarri-Galdakao eta Nerbioi)
4. BUSTURIA- URIBE  
(Uribe, Busturialdea, Mungialde-Txorierri eta Lea-Artibai).




*Iturria:* BFAko Gizarte Ekintza Saila.

II. Eranskinean Gizarte Ekintzako lau Eskualdeetan xehatzen da zonifikazio hau, hura eratzen duten zonak eta udalerriak zehaztuz.

Lurraldea banatzeko modu hori aintzat hartuta, jarrian datorren taulak gaigabezia duten pertsonen banaketa biltzen du Gizarte Ekintzako Eskualdeak gorabehera:

**2. TAULA ETA GRAFIKOA. GAIGABEZIA DUTEN PERTSONAK GIZARTE EKINTZAKO ESKUALDEA GORABEHERA. BIZKAIA (2010).**



GIZARTE EKINTZAKO ESKUALDEAK	PERTSONA KOP.	%
1. BILBO	20.380	32
2. EZKERRALDEA- ENKARTERRIAK	18.523	29
3. IBAIZABAL- NERBIOI	12.240	19
4. BUSTURIA-URIBE	13.114	20
<b>GUZTIRA</b>	<b>64.257</b>	<b>100</b>

*Iturria:* BFAko Gizarte Ekintza Saila.



**GAIGABEZIA BIZKAIAN:  
FORU ERANTZUKIZUNEN PRESTAZIO ETA ZERBITZUEN ERREALitatea, BEHARRAK ETA ESKAINTZA**

Gaigabezia duten pertsonen adina eta sexua gorabehera, haiek Gizarte Ekintzako Eskualdeka banatzen dira hurrengo tauletan bildutako datuei jarraiki:

**3. TAULA. GAIGABEZIA DUTEN PERTSONAK ADIN TARTEA ETA SEXUA GORABEHERA. BIZKAIIA (2010).**

ADIN TARTEA	GIZON KOP.	EMAKUME KOP.	GUZTIRA	%
0 eta 3 bitarteko urteak	225	179	404	1
4 eta 6 bitarteko urteak	285	169	454	1
7 eta 15 bitarteko urteak	926	496	1.422	2
16 eta 18 bitarteko urteak	281	191	472	1
19 eta 54 bitarteko urteak	14.167	9.771	23.938	37
55 eta 64 bitarteko urteak	7.648	4.722	12.370	19
65 urte edo gehiago	13.385	11.812	25.197	39
<b>GUZTIRA</b>	<b>36.917</b>	<b>27.340</b>	<b>64.257</b>	<b>100</b>

BILBO				
ADIN TARTEA	GIZON KOP.	EMAKUME KOP.	GUZTIRA	%
0 eta 3 bitarteko urteak	77	51	128	1
4 eta 6 bitarteko urteak	97	61	158	1
7 eta 15 bitarteko urteak	301	155	456	2
16 eta 18 bitarteko urteak	74	57	131	1
19 eta 54 bitarteko urteak	4.481	3.139	7.620	37
55 eta 64 bitarteko urteak	2.148	1.431	3.579	18
65 urte edo gehiago	4.145	4.163	8.308	41
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.323</b>	<b>9.057</b>	<b>20.380</b>	<b>100</b>

EZKERRALDEA-ENKARTERRIAK				
ADIN TARTEA	GIZON KOP.	EMAKUME KOP.	GUZTIRA	%
0 eta 3 bitarteko urteak	53	43	96	1
4 eta 6 bitarteko urteak	73	39	112	1
7 eta 15 bitarteko urteak	250	129	379	2
16 eta 18 bitarteko urteak	90	49	139	1
19 eta 54 bitarteko urteak	4.233	2.902	7.135	39
55 eta 64 bitarteko urteak	2.207	1.312	3.519	19
65 urte edo gehiago	3.898	3.245	7.143	39
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.804</b>	<b>7.719</b>	<b>18.523</b>	<b>100</b>

IBAIZABAL-NERBIOI				
ADIN TARTEA	GIZON KOP.	EMAKUME KOP.	GUZTIRA	%
0 eta 3 bitarteko urteak	43	35	78	1
4 eta 6 bitarteko urteak	48	31	79	1
7 eta 15 bitarteko urteak	184	93	277	2
16 eta 18 bitarteko urteak	54	33	87	1
19 eta 54 bitarteko urteak	2.632	1.782	4.414	36
55 eta 64 bitarteko urteak	1.618	902	2.520	21
65 urte edo gehiago	2.740	2.045	4.785	39
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.319</b>	<b>4.921</b>	<b>12.240</b>	<b>100</b>

BUSTURIA-URIBE				
ADIN TARTEA	GIZON KOP.	EMAKUME KOP.	GUZTIRA	%
0 eta 3 bitarteko urteak	52	50	102	1
4 eta 6 bitarteko urteak	67	38	105	1
7 eta 15 bitarteko urteak	191	119	310	2
16 eta 18 bitarteko urteak	63	52	115	1
19 eta 54 bitarteko urteak	2.821	1.948	4.769	36
55 eta 64 bitarteko urteak	1.675	1.077	2.752	21
65 urte edo gehiago	2.602	2.359	4.961	38
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.471</b>	<b>5.643</b>	<b>13.114</b>	<b>100</b>

*Iturria:* BFAko Gizarte Ekintza Saila.




**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

Aitorturik duen gaigabezia maila gorabehera, hurrengo taula eta grafikoetan banaketa biltzen da:

**4. TAULA ETA GRAFIKOA. GAIGABEZIA DUTEN PERTSONAK MAILA GORABEHARA. BIZKAIA (2010).**


GAIGABEZIA MAILA	PERTSONA KOP.	%
% 33 BAINO GUTXIAGO	3.214	5
ARINA (% 33-44)	22.367	35
ERTAINA (% 45-64,5)	11.310	18
LARRIA (% 65-74,5)	15.752	24
OSO LARRIA (% 75 ETA +)	11.614	18
<b>GUZTIRA</b>	<b>64.257</b>	<b>100</b>



■ < %33    ■ ARINA    ■ ERTAINA    ■ LARRIA    ■ OSO LARRIA

**5. TAULA ETA GRAFIKOA. GAIGABEZIA AITORTURIK DUTEN PERTSONEN BANAKETA GIZARTE EKINTZAKO ESQUALDEKA ETA GAIGABEZIA MAILA GORABEHARA. BIZKAIA (2010).**

GIZARTE EKINTZAKO ESQUALDEAK		<%33	ARINA	ERTAINA	LARRIA	OSO LARRIA	GUZTIRA
1. BILBO	Zk	886	6.582	3.517	5.350	4.045	20.380
	%	4	32	17	26	20	32
2. EZKERRALDEA-ENKARTERRIAK	Zk	971	6.793	3.325	4.374	3.060	18.523
	%	5	37	18	24	17	29
3. IBAIZABAL-NERBIOI	Zk	669	4.488	2.271	2.855	1.957	12.240
	%	5	37	19	23	16	19
4. BUSTURIA-URIBE	Zk	688	4.504	2.197	3.173	2.552	13.114
	%	5	34	17	24	19	20
GUZTIRA	Zk	3.214	22.367	11.310	15.752	11.614	64.257
	%	5	35	18	25	18	100



Iturria: BFAko Gizarte Ekintza Saila.



**GAIGABEZIA BIZKAIAN:  
FORU ERANTZUKIZUNEN PRESTAZIO ETA ZERBITZUEN ERREALITATEA, BEHARRAK ETA ESKAINTZA**

Sailak adin tarteka gaigabezia duten pertsonen buruz emandako datuak aintzat hartuta (3. taulan bildutakoak) eta gaigabezia maila gorabehera (5. taula), jarraian adin tarteka eta gaigabezia maila gorabehera zenbatetsi den banaketa aurkezten da:

**6. TAULA. BIZKAIAN GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN GAINEAN ZENBATETSI DEN BANAKETA GIZARTE EKINTZAKO ESKUALDEA, ADIN TARTEA ETA GAIGABEZIA MAILA GORABEHERA (2010). (I)**

		GAIGABEZIA MAILA				
ADIN TARTEA	GUZTIRA	<%33	ARINA	ERTAINA	LARRIA	OSO LARRIA
<b>BIZKAI A GUZTIRA</b>						
0 eta 3 bitarteko urteak	404	20	140	71	99	74
4 eta 6 bitarteko urteak	454	23	157	180	112	83
7 eta 15 bitarteko urteak	1.422	71	494	250	349	258
16 eta 18 bitarteko urteak	472	24	165	83	115	85
19 eta 54 bitarteko urteak	23.938	1.197	8.334	4.214	5.869	4.325
55 eta 64 bitarteko urteak	12.370	622	4.316	2.178	3.024	2.230
65 urte edo gehiago	25.197	1.257	8.761	4.435	6.184	4.559
<b>GUZTIRA</b>	<b>64.257</b>	<b>3.214</b>	<b>22.367</b>	<b>11.310</b>	<b>15.752</b>	<b>11.614</b>
<b>BILBO</b>						
0 eta 3 bitarteko urteak	128	6	41	22	34	25
4 eta 6 bitarteko urteak	158	7	51	27	41	31
7 eta 15 bitarteko urteak	456	20	147	79	120	91
16 eta 18 bitarteko urteak	131	6	42	23	34	26
19 eta 54 bitarteko urteak	7.620	331	2.461	1.315	2.000	1.512
55 eta 64 bitarteko urteak	3.579	156	1.156	618	940	710
65 urte edo gehiago	8.308	361	2.683	1.434	2.181	1.649
<b>GUZTIRA</b>	<b>20.380</b>	<b>886</b>	<b>6.582</b>	<b>3.517</b>	<b>5.350</b>	<b>4.045</b>
<b>EZKERRALDEA-ENKARTERRIAK</b>						
0 eta 3 bitarteko urteak	96	5	35	17	23	16
4 eta 6 bitarteko urteak	112	6	41	20	26	19
7 eta 15 bitarteko urteak	379	20	139	68	89	63
16 eta 18 bitarteko urteak	139	7	51	25	33	23
19 eta 54 bitarteko urteak	7.135	374	2.617	1.281	1.685	1.179
55 eta 64 bitarteko urteak	3.519	184	1.291	632	831	581
65 urte edo gehiago	7.143	374	2.620	1.282	1.687	1.180
<b>GUZTIRA</b>	<b>18.523</b>	<b>971</b>	<b>6.793</b>	<b>3.325</b>	<b>4.374</b>	<b>3.060</b>



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

**6. TAULA. BIZKAIAN GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN GAINEAN ZENBATETSI DEN BANAKETA GIZARTE EKINTZAKO ESKUALDEA, ADIN TARTEA ETA GAIGABEZIA MAILA GORABEHERRA (2010). (II)**

		GAIGABEZIA MAILA				
ADIN TARTEA	GUZTIRA	<%33	ARINA	ERTAINA	LARRIA	OSO LARRIA
<b>IBAZABAL-NERBIOI</b>						
0 eta 3 bitarteko urteak	78	4	29	14	18	12
4 eta 6 bitarteko urteak	79	4	29	15	18	13
7 eta 15 bitarteko urteak	277	15	102	51	65	44
16 eta 18 bitarteko urteak	87	5	32	16	20	14
19 eta 54 bitarteko urteak	4.414	241	1.618	819	1.030	706
55 eta 64 bitarteko urteak	2.520	138	924	468	588	403
65 urte edo gehiago	4.785	262	1.755	888	1.116	765
<b>GUZTIRA</b>	<b>12.240</b>	<b>669</b>	<b>4.488</b>	<b>2.271</b>	<b>2.855</b>	<b>1.957</b>
<b>BUSTURIA-URIBE</b>						
0 eta 3 bitarteko urteak	102	5	35	17	25	20
4 eta 6 bitarteko urteak	105	6	36	18	25	20
7 eta 15 bitarteko urteak	310	16	106	52	75	60
16 eta 18 bitarteko urteak	115	6	39	19	28	22
19 eta 54 bitarteko urteak	4.769	250	1.638	799	1.154	928
55 eta 64 bitarteko urteak	2.752	144	945	461	666	536
65 urte edo gehiago	4.961	260	1.704	831	1.200	965
<b>GUZTIRA</b>	<b>13.114</b>	<b>688</b>	<b>4.504</b>	<b>2.197</b>	<b>3.173</b>	<b>2.552</b>

*Iturria:* BFAko Gizarte Ekintza Saileko datuak.

Motaren arabera gaigabezia duten pertsonei dagokienez, jarraian haien banaketa bilduko da. Gainera, aintzat hartuko da aitorturik duten gaigabezia mailaren aldagaia. Kontuan izan behar da pertsona hauetako askok gaigabezia bat baino gehiago ageri dutela. Hurrengo taulak horien erregistroa biltzen du Sailaren datuak oinarri hartuta eta identifikaturik ageri den lehenengo gaigabeziari (edo nagusi gisa ageri den gaigabezia) jarraiki.






**GAIGABEZIA BIZKAIAN:  
FORU ERANTZUKIZUNEN PRESTAZIO ETA ZERBITZUEN ERREALITATEA, BEHARRAK ETA ESKAINTZA**

**7. TAULA ETA GRAFIKOA. GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN BANAKETA GAIGABEZIA MOTA ETA MAILA GORABEHERA. BIZKAIA (2010).**

	<33%		ARINA		ERTAINA		LARRIA		LARRIA		GUZTIRA	
	Pertsonak	%	Pertsonak	%	Pertsonak	%	Pertsonak	%	Pertsonak	%	Pertsonak	%
Gaigabezia fisikoa edota organikoa duten pertsonak	2.408	7	14.490	41	7.039	20	6.300	18	4.826	14	35.063	55
Gaigabezia intelektuala duten pertsonak	3	0	1.265	24	823	16	1.826	35	1.374	26	5.291	8
Buruko gaixotasuna duten pertsonak	176	1	2.440	19	1.760	13	6.174	47	2.498	19	13.048	20
Gaigabezia sentsoriala duten pertsonak	531	5	3.558	36	1.623	16	1.344	14	2.882	29	9.938	15
Bestelako gaigabeziak dituzten pertsonak	96	10	614	67	65	7	108	12	34	4	917	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.214</b>	<b>5</b>	<b>22.367</b>	<b>35</b>	<b>11.310</b>	<b>18</b>	<b>15.752</b>	<b>25</b>	<b>11.614</b>	<b>18</b>	<b>64.257</b>	<b>100</b>



*Iturria:* BFAko Gizarte Ekintza Saileko datuak.

Aurreko taulako datuen gainean Gizarte Ekintzako Eskualdea gorabehera gaigabezia duten pertsonen banaketa portzentajeak aplikatuz gero (2. taula), hurrengo zenbatespena iritertzen da, gaigabezia maila gorabeherako parametroak ere aintzat hartuz gero:



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

**8. TAULA. BIZKAIAN GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN GAINEAN ZENBATETSI DEN BANAKETA  
GIZARTE EKINTZAKO ESQUALDEA ETA AGERI DUTEN GAIGABEZIA MOTA ETA MAILAREN ARABERA (2010).**

	<%33	ARINA	ERTAINA	LARRIA	OSO LARRRIA	GUZTIRA
<b>Gaigabezia fisikoa edota organikoa duten pertsonak</b>						
BILBO	764	4.596	2.232	1.998	1.531	11.121
EZKERRALDEA-ENKARTERRIAK	694	4.177	2.029	1.816	1.391	10.107
IBAIZABAL-NERBIOI	459	2.760	1.341	1.200	919	6.679
BUSTURIA-URIBE	491	2.957	1.437	1.286	985	7.156
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.408</b>	<b>14.490</b>	<b>7.039</b>	<b>6.300</b>	<b>4.826</b>	<b>35.063</b>
<b>Gaigabezia intelektuala duten pertsonak</b>						
BILBO	1	401	261	579	436	1.678
EZKERRALDEA-ENKARTERRIAK	1	365	237	526	396	1.525
IBAIZABAL-NERBIOI	0	241	157	348	262	1.008
BUSTURIA-URIBE	1	258	168	373	280	1.080
<b>GUZTIRA</b>	<b>3</b>	<b>1.265</b>	<b>823</b>	<b>1.826</b>	<b>1.374</b>	<b>5.291</b>
<b>Buruko gaixotasuna duten pertsonak</b>						
BILBO	56	774	558	1.958	792	4.138
EZKERRALDEA-ENKARTERRIAK	51	703	508	1.780	720	3.762
IBAIZABAL-NERBIOI	33	465	335	1.176	476	2.485
BUSTURIA-URIBE	36	498	359	1.260	510	2.663
<b>GUZTIRA</b>	<b>176</b>	<b>2.440</b>	<b>1.760</b>	<b>6.174</b>	<b>2.498</b>	<b>13.048</b>
<b>Gaigabezia sentsoriala duten pertsonak</b>						
BILBO	169	1.128	515	426	914	3.152
EZKERRALDEA-ENKARTERRIAK	153	1.026	468	387	831	2.865
IBAIZABAL-NERBIOI	101	678	309	256	549	1.893
BUSTURIA-URIBE	108	726	331	275	588	2.028
<b>GUZTIRA</b>	<b>531</b>	<b>3.558</b>	<b>1.623</b>	<b>1.344</b>	<b>2.882</b>	<b>9.938</b>
<b>Bestelako gaigabeziak dituzten pertsonak</b>						
BILBO	30	195	21	34	11	291
EZKERRALDEA-ENKARTERRIAK	28	176	19	31	10	264
IBAIZABAL-NERBIOI	18	118	12	21	6	175
BUSTURIA-URIBE	20	125	13	22	7	187
<b>GUZTIRA</b>	<b>96</b>	<b>614</b>	<b>65</b>	<b>108</b>	<b>34</b>	<b>917</b>
<b>GUZTIRA</b>						
BILBO	1.020	7.094	3.587	4.995	3.684	20.380
EZKERRALDEA-ENKARTERRIAK	927	6.447	3.261	4.540	3.348	18.523
IBAIZABAL-NERBIOI	611	4.262	2.154	3.001	2.212	12.240
BUSTURIA-URIBE	656	4.564	2.308	3.216	2.370	13.114
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.214</b>	<b>22.367</b>	<b>11.310</b>	<b>15.752</b>	<b>11.614</b>	<b>64.257</b>

*Iturria: BFAko Gizarte Ekintza Saileko datuak.*




**GAIGABEZIA BIZKAIAN:  
FORU ERANTZUKIZUNEN PRESTAZIO ETA ZERBITZUEN ERREALITATEA, BEHARRAK ETA ESKAINTZA**

Gaigabezia eta 19 eta 64 urte artean duen pertsona taldea aintzat hartuta (bigarren mailako foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuen zati garrantzitsu baten hartzaille izango den biztanleriaren ikuspegi berezitik), Sailak emandako datuek hurrengo ondorioak eta zenbatespenak egitea ahalbidetzen dute:

**9. TAULA ETA GRAFIKOA. GAIGABEZIA AITORTURIK ETA 19 ETA 64 URTE ARTEAN DUTEN PERTSONEN BANAKETA GAIGABEZIA MOTA ETA MAILA GORABEHERRA. BIZKAIA (2010).**

	<33%		ARINA		ERTAINA		LARRIA		OSO LARRIA		GUZTIRA	
	Pertsonak	%	Pertsonak	%	Pertsonak	%	Pertsonak	%	Pertsonak	%	Pertsonak	%
Gaigabezia fisikoa edota organikoa duten pertsonak	1.870	10	7.905	44	3.200	18	3.038	17	2.080	11	18.093	50
Gaigabezia intelektuala duten pertsonak	3	0	1.137	25	699	15	1.596	35	1.184	26	4.619	13
Buruko gaixotasuna duten pertsonak	155	2	1.536	18	1.142	13	5.121	59	746	9	8.700	24
Gaigabezia sentsoriala duten pertsonak	397	8	1.817	38	669	14	725	15	1.188	25	4.796	13
Bestelako gaigabeziak dituzten pertsonak	53	53	22	22	7	7	11	11	7	7	100	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.478</b>	<b>7</b>	<b>12.417</b>	<b>34</b>	<b>5.717</b>	<b>16</b>	<b>10.491</b>	<b>29</b>	<b>5.205</b>	<b>14</b>	<b>36.308</b>	<b>100</b>



*Iturria:* BFAko Gizarte Ekintza Saileko datuak.



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

Aurreko taulako datuen gainean Gizarte Ekintzako Eskualdea gorabehera gaigabezia duten pertsonen banaketa portzentajeak aplikatuz gero (2. taula), hurrengo zenbatespena irteten da, gaigabezia duten 19 eta 64 urte arteko pertsonen banaketatik:

**10. TAULA. BIZKAIAN GAIGABEZIA ETA 19 ETA 64 URTE ARTEAN DUTEN PERTSONEN GAINEAN ZENBATETSI DEN BANAKETA GIZARTE EKINTZAKO ESKUALDEA ETA AGERI DUTEN GAIGABEZIA MOTA ETA MAILAREN ARABERA (2010).**

	<%33	ARINA	ERTAINA	LARRIA	OSO LARRIA	GUZTIRA
<b>Gaigabezia fisikoa edota organikoa duten pertsonak</b>						
BILBO	593	2.507	1.015	963	660	5.738
EZKERRALDEA-ENKARTERRIAK	539	2.279	922	876	600	5.216
IBAIZABAL-NERBIOI	356	1.506	610	579	396	3.447
BUSTURIA-URIBE	382	1.613	653	620	424	3.692
GUZTIRA	1.870	7.905	3.200	3.038	2.080	18.093
<b>Gaigabezia intelektuala duten pertsonak</b>						
BILBAO	1	361	222	506	375	1.465
EZKERRALDEA-ENKARTERRIAK	1	328	201	460	341	1.331
IBAIZABAL-NERVIÓN/NERBIOI	0	216	133	304	227	880
BUSTURIA-URIBE	1	232	143	326	241	943
TOTAL	3	1.137	699	1.596	1.184	4.619
<b>Buruko gaixotasuna duten pertsonak</b>						
BILBO	49	487	362	1.624	237	2.759
EZKERRALDEA-ENKARTERRIAK	45	443	329	1.476	215	2.508
IBAIZABAL-NERBIOI	28	293	218	976	142	1.657
BUSTURIA-URIBE	33	313	233	1.045	152	1.776
GUZTIRA	155	1.536	1.142	5.121	746	8.700
<b>Gaigabezia sentsoriala duten pertsonak</b>						
BILBO	126	576	212	230	377	1.521
EZKERRALDEA-ENKARTERRIAK	114	524	193	209	342	1.382
IBAIZABAL-NERBIOI	76	346	127	138	227	914
BUSTURIA-URIBE	81	371	137	148	242	979
GUZTIRA	397	1.817	669	725	1.188	4.796
<b>Bestelako gaigabeziak dituzten pertsonak</b>						
BILBO	17	7	2	4	2	32
EZKERRALDEA-ENKARTERRIAK	15	7	2	3	2	29
IBAIZABAL-NERBIOI	10	4	2	2	1	19
BUSTURIA-URIBE	11	4	1	2	2	20
GUZTIRA	53	22	7	11	7	100
<b>GUZTIRA</b>						
BILBO	786	3.938	1.813	3.327	1.651	11.515
EZKERRALDEA-ENKARTERRIAK	714	3.581	1.647	3.024	1.500	10.466
IBAIZABAL-NERBIOI	470	2.365	1.090	1.999	993	6.917
BUSTURIA-URIBE	508	2.533	1.167	2.141	1.061	7.410
GUZTIRA	2.478	12.417	5.717	10.491	5.205	36.308

*Iturria:* BFAko Gizarte Ekintza Saileko datuak.



**GAIGABEZIA BIZKAIAN:  
FORU ERANTZUKIZUNEN PRESTAZIO ETA ZERBITZUEN ERREALITATEA, BEHARRAK ETA ESKAINTZA**

## 2. EGUNGO BEHARRAK ETA ETORKIZUNEN EZAUGARRIAK

Gaigabezia duten pertsonen egun dituzten beharrak eta etorkizunean edukiko dituzten baloratzeko ikuspegi kualitatibotik begiratuta, eta aintzat hartuta zeintzuk diren Plan hau lantzerakoan parte hartu duten gaigabeziaren gizarte entitateek egindako ekarpenak (ikusitako III. Eranskina), jarraian gaigabezia duten pertsonen egungo beharren eta etorkizunean izan ditzaketenen alderdi nagusiak biltzen dira.

Lehenik eta behin, alderdi orokorrak aurkeztuko dira eta, jarraian, haien berriazko beharrak foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuen sistemari dagokionez (prestazioak eta zerbitzuak, eskuratzeko sistema eta estaldura).

### 2.1. Alderdi orokorrak

Idatz-zati honetan Bizkaian gaigabezia duten pertsonen egungo beharrei eta etorkizunean izan ditzaketenei buruzko alderdi orokorrak biltzen dira:

- Orokorrean, gizarte eraldaketako bidean aurrerantz egiteko beharra ikusten da, baldintza hobeak lortzerantz (irisgarritasun unibertsalean, gizarteratzean eta parte-hartze eta aukera berdintasunean). Horren bitartez, posible izan behar dute gaigabezia duten pertsona guztiek autonomia, bizitza independentea, parte-hartzea eta komunitatearen ingurunean garapena edukitzea.
- Esku-hartzeak pertsona hauen bizitzako ibilbidean berezkoak diren laguntzako berriazko beharretara egokitzeko geroz eta behar handiagoa eta anitzagoa igartzen da. Hain zuzen ere:
  - Gaigabeziaren bat duten haurrek eta nerabeek geroz eta talde handiagoa eratzten dute; berriazko laguntza behar garrantzitsua dute, haiek ahalik eta gaitasun eta garapen handienak lor ditzaten eta gizarteratze eta autonomia eraginkorrerantz egin dezaten bizitzako etapa hauetan jada.
  - Halaber, heldu gaigabetuen laneratzea eta gizarteratzea ahalbidetuko duen berriazko laguntza beharra ere ikusten da. Azken batean, baliabide hauek, eremu ezberdinetatik –lana eta etxebizitza, batez ere– erraztu egin behar dute edo posible bihurtu haien autonomia maila altuena eta bizitza independentea komunitatearen ingurunean.
  - Biztanleria zahartzea (bai gaigabezia duten pertsonena, bai haien familia edo harreman ingurunearena) erantzun sistemari erronkak planteatzen dizkion beste faktore garrantzitsu bat da. Sistemak zahartze aktiboko estrategiak bultzatu behar ditu helduen etapatik.



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

- Datozen urteetarako eskarian hazkunde sendoa baloratu da mota guztietako laguntza, zerbitzu eta baliabideei uztartuta, horiek, orokorrean, bizitza independentea garatzea erraztuko badute. Eskari hazkundea igarriko da beren ohiko etxebizitzan edo ingurunean bizi diren pertsonen multzoan.

Errealitate horrek erantzun egokiak eskatzen ditu pertsona horiei ahalik eta autonomia pertsonal, bizitza independente eta ingurunearen garapen handiena emateko, baina baztertu gabe ere egoitza izaerako edo antzekoetan espezializatutako baliabideak behar dituztenen beharrak (datorren idatz-zatian aipatzen denaren ildo beretik).

Bizitza modu autonomoan garatu ahal izateko premisa gisa, beharrezkotzat baloratzen da baldintzak eta erantzun sistema hobetzea, lehenik eta behin irisgarritasun unibertsaleko, laguntza pertsonaleko, laneratzeko eta baliabide ekonomikoko alderdiei dagokienez (horrela, kotizazio gabeko eta kotizaziopeko pentsioen sistema, enplegu ezegonkorra eskuratzea, laguntza pertsonala errazten duen sistema, autonomia babesteko produktuak, etxebizitzetan irisgarritasun eta zaharberrikuntza obrak, garraioa orokorrean,... hobetuz): hori guztia beharrezkoa da bizitza ohiko ingurunean garatu ahal izateko.

- Aurreko idatz-zatian adierazi denari uztartuta, bizitza independente bat garatzen dela erraztera zuzendutako laguntzak, zerbitzuak eta baliabideak zabaltzea bestelako laguntza, zerbitzu eta baliabideen eskaintzarekin batera joan behar da, erakunde izaerakoak horiek (etxebizitzatik kanpo, aldizkako ostatu zerbitzuetan edo zerbitzu iraunkorretan). Zerbitzu horiek, bestalde, beharrezkoak dira gaigabezia duen pertsona ugariren laguntza beharrak atenditzeko. Zentzu horretan, erakunde arreta ez da ageri komunitatean parte hartzeko eta bizi kalitatea edukitzeko eredutik aparte. Komunitatean bizitza autonomoa bultzatzea –edo zerbitzuen deszentralizazioa, hurbiltasuna... bezalako beste alderdi batzuk– ez da bateraezina bigarren mailako foru erantzukizuneko arreta zerbitzuak ematearekin, eta ez da bateraezina, ezta ere, erakunde arretarekin (oraindik ohiko bizitokian bizi den pertsonari emandako arretaren aldean).
- Familia ereduaren aldaketak, zaintzaileen zahartzearekin batera, familien amore emate egoerak dakartza (batez ere autonomiarako eta parte-hartzerako zailtasun gehien dituzten gaigabetu taldeen artean) eta horrek behar egoera berriak ekartzen ditu. Kasu guztietan beharrezkotzat jotzen da familiei eta zaintzaileei emandako babesa biziagotzea, arnasa hartzeko zerbitzuetan eta haiei emandako laguntzan formula berriak bultzatuz (informazioa, orientazioa, prestakuntza, laguntza psikologikoa...) gaigabezia duten pertsonen komunitatearen ingurunean autonomia pertsonala dutela ahalbidetzeko bideetako bat bezala eta, bereziki, gaigabezia



**GAIGABEZIA BIZKAIAN:  
FORU ERANTZUKIZUNeko PRESTAZIO ETA ZERBITZUEN ERREALITATEA, BEHARRAK ETA ESKAINTZA**

duzen pertsonek beren beharrak edo bizitzako ibilbidean dituzten lehentasunak adierazterik ez duten kasuetan.

- Beharrezko gisa baloratzen da, erakundeek garatzen duten esku-hartze ereditik, pertsonan oinarritzen den plangintza, autodeterminazioa eta plangintza hori pertsona bakoitzaren behar, erabaki eta bilakaera beharrak ageri dituen bizitzako ibilbide zehatzetara egokitzea bultzatzea.
- Gaigabezia anitzeko eta urritasun anitzeko egoeretatik eratorritako behar konplexuak areagotzen doazela ikusi da, beste faktore batzuen artean biztanleria zahartzeari uztartuta.

## **2.2. Berariazko beharrak foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuen sistemari uztartuta**

Idatz-zati honetan gizarte zerbitzuen alorreko berariazko beharrak ezaugarritzen dira, gaigabezia duten pertsonen eta haien familien behar nagusien alderdiak bilduz gaur egun dagoen prestazio eta zerbitzu eskaintzaren aldean (tipologia eta zerbitzuen estaldura, eta eskuratzeko sistema).

### **2.2.1. Prestazio eta zerbitzu eskaintzarekin zerikusia duten alderdiak (tipologia eta zerbitzu estaldura)**

Jarraian, gaigabezia duten pertsonentzat eta haien familientzat dauden foru erantzukizuneko gizarte zerbitzu eta prestazioen egungo tipologia eta estaldurari buruzko alderdien ondorioak biltzen dira. Hobetu, egokitu edo osatu egin behar direla baloratu da, horren birtartez taldearen beharrentzako erantzun maila behar bestekoa eta egokia izan dadin. Lehenik eta behin talde osoak, orokorrean, partekatutako alderdiak aurkezten dira. Bigarrenik, Plan hau lantzeko garatu den parte-hartze prozesuaren esparruan talde ezberdinek beharrezkotzat jotako hobekuntzak biltzen dira:

#### **A) Talde osoaren alderdi komunak edo haiek partekatutakoak:**

- Foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuen sistema bat garatzen jarraitzeko beharra partekatzen da, gai izango dena behar beste atenditzeko talde guztien laguntza beharrak.
- Dauden baliabideak egokitzeko eta malgutzeko eskaria edo beharra areagotu egin dela ikusi da, horiek gaigabezia duten pertsonen eta haien familien berariazko beharretara egokitze aldera.
- Beharrezkotzat jotzen da prestazioen egungo eskaintza taldearen egungo beharretara eta sor daitezkeenetara egokitzea (bai gaigabezia duten pertsonentzat



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

eurentzat, bai haien familia/harreman ingurunearentzat), haien bizitza ibilbidea dena dela: hondamen/zahartze egoera areagotzea, laneratzeko eta gizarteratzeko laguntza beharra duten pertsona helduak, haurtzaroa/nerabezaroa. Beste hainbat gairen artean, aztertu egin beharko da nola egokitu existitzen diren baliabideak pertsona horiekiko berriazko arreta baterako (zerbitzuetan edo zentroetan zahartzerako unitate edo zona bereziak sortzea, eta abar), zerbitzuen erabiltzaile direnen zahartzea jazotzen den kasuan arreta ratioak nola malgutu edo egokitu aztertu beharko da, eta abar.

- Familiei eta zaintzaileei emateko laguntza zerbitzuak garatzen jarraitzeko beharra planteatzen da, arnasa hartzeko zerbitzuak bultzatzea eta neurri berriak sartzea.
- Beharrezkotzat jotzen da ongi pasatzeko eta aisialdiko programen garapenari emandako babesa indartzea, gaigabezia duten pertsonen autonomia pertsonalaren eta komunitatearen ingurunean parte hartzearen alde egiteko eta familiarentzat arnasa hartzeko formula gisa jarduteko.
- Boluntarioei laguntzeko programak ere bultzatu egin beharko lirateke.
- Lanbide zentroetaraino edo gaigabezia duen pertsona joan behar izan daitekeen beste tokiren bateraino garraio egokituaren zerbitzua bermatzeko beharra aztertu egin beharko litzateke.
- Gizateken ekimena positibotzat jotzen da, eta haren lurralde zabalkundearen interesa baloratu egiten da (edo haren informazio puntuak sortzea eta I+G+B eremu bat sartzea gizarte esparruan), edozein kasutan ere oinarrizko gizarte zerbitzuekiko harremana/koordinazioa hobetuz haren funtzionamendua ezin hobea izan dadin.
- Laguntza produktuetarako laguntza sistemaren ebaluazio jarraitua egin beharko litzateke, gaigabezia duten pertsonen ordezkari diren entitateen parte-hartzea edukita.
- Beharrezkotzat jotzen da egoitzazko zerbitzuen, egoitza zentroyen eta, batez ere, laguntza duen etxebizitzaren eta norberaren etxebizitzan laguntza edukitzearen estaldura zabaltzea, baita eguneko zentroetan ere.
- Laguntza zerbitzuak edo programak eta elkarte jardueraren jabeakuntza aintzat hartzeko interesa azpimarratzen da, batez ere talde ahulenen ordezkari diren elkarte horiena, sorrera berriko elkarteak ere bultzatuz. Aholkularitza zerbitzuak eskaintzea kudeaketan, kontabilitatean, auditoretzan.
- Joan-etorrietarako, elikagaietarako, bizitokirako... prestazio ekonomikoak sartzea aztertu beharko litzateke, horiek zerikusia dutenean zerbitzu espezializatu batekin erabiltzailearen ohiko ingurunetik kanpo ematen denean.





**GAIGABEZIA BIZKAIAN:  
FORU ERANTZUKIZUNEN PRESTAZIO ETA ZERBITZUEN ERREALitatea, BEHARRAK ETA ESKAINTZA**

## **B) Berariazko alderdiak gaigabezia multzoak gorabehera:**

### **Gaigabezia fisikoa edota organikoa duten pertsonak**

- Komunitatearen ingurunean bizitoki aukeren, laguntza duten etxebizitzaren, eskaintza nahikoa edukitzeko beharra ikusi da.
- Halaber, beharrezkotzat baloratzen da integratzioko eta gaikuntzako zentroyen (eguneko zentroak) behar besteko eskaintza edukitzea, gaigabezia duten pertsona horiei zuzenduta. Gaur egun, ezaugarri horiek dituen zentro bakarra dago Bizkaian, eta hartara iristeko pertsona ugari itxaron zerrendan dagoela ikusi da.
- Beharrezkotzat jotzen da laguntza produktuak eskuratzen direla sustatzea, eta baita prestazio ortoprotesikoen katalogo egokia eskuratzen dela sustatzea ere. Horrelako produktuak eskuratzeak osatu egiten ditu azken urteetan ingurunearen irisgarritasuna hobetzeko egindako esku-hartzeak. Horrela, ingurunera sartzeko nahiz lan, hezkuntza eta gizarte eremuetara sartzeko ahalbidetzen da esparru guztietan.
- Bizitza independentea errazten duten programen aldeko apustua egitea (besteak beste, laguntza pertsonala). Besteak beste, laguntza pertsonaleko prestazio ekonomikoa eskasa dela uste da, zaintzaile informalaren prestazio ekonomiko bezalaxe.
- Ikusi da gaigabezia fisikoa edota organikoa duten haur, nerabe eta gazteen beharrak aisialdi eta denbora libreko programak eskuratzean pilatzen direla, eta horien eskaintza behar bestekoa izatea beharrezkoa da.
- Beharrezkotzat jotzen da errehabilitazio eta mantentze tratamenduei dagokienez laguntza gehiago edukitzea.
- Egoitzetan aldi baterako harrerarako plaza kopuru jakina gordetzeko beharra ikusi da ere, larrialdi kasuak gertatzen direnerako.
- Baliabide berritzaile gisa, Jarduera Zentroak edukitzea, Lurraldeko Eskualde ezberdinetan Gaikuntza Zentroyen sarea sortzea eta etxebizitzako eredu alternatiboak edukitzea interesgarria dela planteatu da.

### **Entzumen gaigabezia duten pertsonak eta ikusmen gaigabezia duten pertsonak**

- Gaigabezia sentsoriala duten haur eta nerabeen geroz eta eskari handiagoa igarri da (hirukoiztu egin da azken urteetan arazo hauek dituen pertsona kopurua).
- Entzumen gaigabezia duten pertsonen berezitasunak –ongi berezitako eskakizunekin– aintzat hartu behar direla uste da, ikusmen gaigabezia duten pertsonen kasuan gertatzen den moduan. Berariazko beharrak dituzte komunikazioaren, lanbidearen eta aisialdiaren eremuko irisgarritasuna, informazioa eskuratzea eta ingurunearekiko elkarrekintza bezalako gaietan.



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

Batetik, entzumen gaigabezia duten pertsonak hurrengo baliabide beharrak planteatzen dituzte:

- a. Berezko baliabide zentroa edukitzea (gizarte eta aisialdi zentroa), laguntzeko produktuen eremua eta zeinu hizkuntzaren interprete zerbitzua sartuz. Zeinu hizkuntzaren interprete zerbitzua malgutzea ahalbidetuko duten formulak ere aztertu behar dira, ordutegi zabalean eta elkarten mundutik bananduta egon dadin zerbitzua. Ildo berdin honetan, haien komunikazioa eta autonomia pertsonala babestu behar dira, berariazko kualifikazioa duten profesionalen bitartez (gidak, interpreteak edo bitartekariak).
- b. Eguneko zentroyen tipologia malgutzea, bestelako erantzun hautabideak biltzeko (adibidez entzumen gaigabezia duten pertsonentzako Gizarte Zentroa).
- c. Gainera, entzumen gaigabezia duten pertsonak laguntza beharra edukitzen dute orokorrean irisgarritasunerako eta, batez ere, zerbitzuetako komunikaziora iristeko. Berariazko arreta eta orientazio zerbitzuekin, Zeinu Hizkuntzaren interprete zerbitzuarekin, uztartuta ere, prestakuntza egokituaren eremuan komunikaziorako irisgarriak diren kultura eta aisialdi jarduerak

Bestalde, ikusmen gaigabezia duten pertsonak uste dute hurrengo alderdiak hobetu egin beharko liratekeela prestazioen egungo eskaintzan:

- a. Laguntza edo prestazio ekonomiko berriak sartzea, laguntzarako txakurrak edo gida txakurrak bezalako laguntzak errazteko.
- b. Haien komunikazioa eta autonomia pertsonala laguntzea berariazko kualifikazioa duten profesionalen bitartez (gidak, interpreteak edo bitartekariak). Laguntzaile zerbitzua ere bultzatu egin behar da.
- c. Ikusmen gaigabezia duten pertsonak laguntza beharrak dituzte hurrengo baliabideei dagokienez: laguntza etxean; egoitza zerbitzuak familiaren laguntzarik ez duten pertsonentzat; laguntza duen etxebizitza mendetasun egoeran dauden, ikusmen gaigabezia duten, familiaren laguntzarik ez duten eta lan egiteko adinean dauden pertsonentzat; laguntza ikusmen gaigabezia duten haur eta gazteen familientzat.

**Gaigabezia intelektuala duten pertsonak**

- Beharrezkotzat jotzen da gaigabezia intelektuala izan eta hondamen edota zahartze egoeran dauden pertsonen erantzun egokia emateko baliabideak antolatzea.
- Gaigabezia intelektuala eta jokabide nahasmenduak dituzten pertsonen laguntzeko zerbitzuen ezaugarriak definitzea interesgarritzat jo da ere.



**GAIGABEZIA BIZKAIAN:  
FORU ERANTZUKIZUNEN PRESTAZIO ETA ZERBITZUEN ERREALITATEA, BEHARRAK ETA ESKAINTZA**

- Haien behar zehatzei dagokienez, hurrengo alderdien inguruan planteatzen dira horiek: Arreta Goiztiarraren zerbitzua zabaltzea 6 urteetara arte, derrigorrez eskolatu beharrezkin bat eginez -gainera, "etxez etxe" emateko aukera aztertu behar da, beharra ageri duten kasu zehatzetan-; babes haur garapenari; babes komunikazioaren garapenari; autonomia pertsonala eta gizartekoa sustatzeko zerbitzuak adin ezberdinetan; aisialdirako laguntza, gizarte parte-hartzea eta komunitateko zerbitzuak eskuratzeko zerbitzuak; bizitza independenterako babes etapa ezberdinetan (gazteak, adinekoak); laguntza etxean adin ezberdinetan eta intentsitate ezberdinetan; laguntza familiei beren seme-alaben bizitzako etapa ezberdinetan; laguntza jardueren garapenean arrazoi ezberdinengatik lan egiten ez duten gaigabetu intelektualentzat; eta laguntza ekonomikoa zenbait zerbitzu eskuratu ahal izateko.
- Beharrezkotzat jotzen da, halaber, eguneko zentroetan gehieneko plaza kopurua egokitzea gaigabezia intelektuala duten pertsonentzat eta plaza kopurua areagotzea berriazko egoitza zentroetan gaigabezia intelektuala eta jokabide nahasmenduak dituzten pertsonentzat.

**Autismoa eta autismoaren espektroko nahasmenduak dituzten pertsonak**

- Talde honetan hazkunde sendoa ikusi da (% 40 hazi da azken hiru urteetan).
- Espektro autistako pertsonak arreta eta gaikuntza iraunkorra behar dute bilakaera ingurune batean, izan ere, 18 urteetatik aurrera garatzen ari dira oraindik. Haien behar nagusiak espektro autistako pertsonentzako baliabide espezializatuak dira, gaigabezia intelektualetik eta baliabide orokorretatik bereizita. 6 urte bete arte arreta goiztiarra ere behar dute.
- Familientzat arnasa hartzeko zerbitzuak, laguntzakoak edo bakarkako laguntzakoak eta bizitokian laguntzekoak biltzeko berriazko programa sortzeko beharra baloratu da.

**Garun paralisia duten pertsonak**

- Talde honetatik eremu ezberdinetan laguntza emateko berriazko baliabideak behar direla planteatu da: Ingurunerako egokitzapenak, laguntza produktuak, laguntzaile pertsonala, laguntza norberaren etxean, egokitutako aisialdi eta denbora libreko programak, zentroetara eta aisialdi eta denbora libreko programe-tara joateko garraio egokitua, egoitza edo etxebizitza zerbitzuak laguntzarekin garun paralisia duenaren zaintzailea zahartze aurreratuko etapa batean dagoen senide bat den kasuan, garun paralisia duten pertsonentzako plazak areagotzea berriazko eguneko zentroetan, arreta goiztiarra 6 urteetara iritsi arte, logopedia, hidroterapia, estimulazio basala bizitzako lehen etapetan.



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

- Halaber, familientzat arnasa hartzeko zerbitzuak, laguntzakoak edo bakarkako laguntzakoak eta bizitokian laguntzekoak biltzeko berariazko programa sortzeko beharra baloratu da.

**Bat-batean hartutako garun kaltea duten pertsonak**

- Talde honetatik berariazko baliabideak behar direla planteatzen da hurrengoetan: errehabilitazioan, laguntza psikologikoan, logopedian, fisioterapian, aisialdian eta denbora librean, eta laguntza duten etxebizitzetan eta bat-batean hartutako garun kaltea duten pertsonentzako egoitzetan.
- Bat-batean hartutako garun kaltea duten eta muga ertainak edo larriak dituzten pertsonentzako zentroetan plaza kopurua areagotzea beharrezkotzat jotzen da, familiek arnasa har dezaten. Lanerako zentroak ere beharrezkotzat jotzen dira talde honentzat.

**Buruko gaixotasuna duten pertsonak**

- Ezinbestekotzat jotzen da pertsona hauen gizarteratzeari eta parte-hartzeari bereziki eragiten dioten ondorioak dituen gizarte estigmari aurre egitea.
- Buruko gaixotasunak eragindako pertsona talde honetan hazkunde sendoa igarri da, haien arazoak anitzak eta konplexutasun berezikoak izanez.
- Laguntza beharrak igarri dira, eta horiei erantzun berezi egokiak eskaini behar zaizkie, bai haurtzaroan/nerabezaroan, bai heldu gisako bizitzan eta hondamen/zahartze egoeretan.
- Buruko gaixotasuna duten pertsonen profilak eskatu egiten du etxebizitzaren alorreko laguntzak eta lanbide prestakuntzakoak, lan aurrekoak, areagotzea (lan munduan sartzera orientatuta).
- Beharrezkotzat jotzen da etxez etxeko laguntza sarea zabaltzea; bertan, ikuspegi psikologikoa eta hezkuntzako, jokabideak eta jarrerak ikastekoa eta ingurunea ezagutzeakoak sartuko lirarteke buruko gaixotasuna duten pertsonentzat nahiz haien familientzat.
- Beharrezkotzat jotzen da baliabide berritzaileak sortzea buruko gaixotasuna duten baina intentsitate baxuko arreta behar duten eta muga gutxi eta kontrol maila baxua duten pertsonentzat (kasu askotan baloratu egiten da horrela bakarrik lor daitekeela pertsonak "harrapatzea" behar dituzten laguntza baliabideetara joan daitezen).
- Buruko gaixotasuna duten pertsonen kasuan, berezitasunak ikusita (gaixotasuna antzemateko eta laguntzak onartzeko zailtasuna, etengabeko berrerorikoak...), funtsezkoa da baliabideak malgutzea eta egokitzea, eta baita baliabideen artean igarero eta mugikortasuna egotea ahalbidetu eta arinduko duten neurriak aztertzea ere.



**GAIGABEZIA BIZKAIAN:  
FORU ERANTZUKIZUNEN PRESTAZIO ETA ZERBITZUEN ERREALITATEA, BEHARRAK ETA ESKAINTZA**

- Beharrezkotzat jotzen da informazio eta orientazio zerbitzu hobea edukitzea, horrek aukera eman dezan buruko gaixotasuna ezagutu eta normalizatzeko agerraldi bat jasaten duten eta egoera inolaz ere ezagutzen ez duten gazteen nahiz haien familien artean.
- Eguneko arreta zerbitzuak, etxebizitzak eta gizarte eta familia laguntza psiko-komunitarioko programak areagotu egin beharko lirateke.

### 2.2.2. Prestazioak eta zerbitzuak eskuratzearekin zerikusia duten alderdiak

Idatz-zati honetan baliabideak eskuratzekoan hobetzea edo gaigabezia duten pertsonen beharretara egokitzea beharrezkoa dela uste den alderdiak biltzen dira:

- Zerbitzu edota sail ezberdinen arteko koordinazioa hobetzea, baita gizarte eta osasunaren, hezkuntzaren, etxebizitzaren, enpleguaren, justiziaren... esparruetan ere.
- Oinarrizko gizarte zerbitzuekiko koordinazioa hobetzea eta baliabide espezializatuak eskuratzeko malgutzea oinarrizko zerbitzuen bitartez.
- Gaigabezia ugariko pertsonei egokitzea baliabideak.
- Ebaluazio eta orientazio tresnak garatzea, baliabideak eta zerbitzuak egoki esleitzeko gaigabezia duten pertsonen laguntza beharrak gorabehera.
- Baliabideak eskuratzeko irizpideak malgutzea, berdintzea eta arintzea, sistemara iristeko balorazioa pertsonaren beharren ikuspegitik eginez.
- Baliabide batetik beste baterako trantsizioa eta mugikortasuna malgutzea eta arintzea.
- Baliabideen erabilera malgutzea; horrela, egoitza zentro batera sartzeko bateragarria izan behar da eguneko zentro batera sartzearekin.
- Gaigabezia maila aitortzeko eta mendetasuna baloratzeko izapideak arintzea.
- Neurri malguak aztertzea, erabiltzaileen errealitateari eta beharrei egokituta. Horiek baliabideak eskuratzeko saiakeraaldiak edo behin-behineko baimenak ahalbidetu behar dituzte.
- Kasuaren jarraipena edo koordinazioa egitea, pertsona bakoitzaren bizi zikloaren birlaera beharrei jarraiki eta gizarte ekimeneko entitateetatik, haiekin koordinatuta edo erreferentziako profesionalaren eta administrazio publikoan edota gizarte ekimeneko entitateetan funtzioak betetzen dituzten beste profesionalen parte-hartzea duten diziplina anitzeko taldeen sorreraren bitartez.
- Baliabideak eskuratzeari, eskuratzeko horren ezaugarriari, dauden baliabideei, prozedu-ari, eta abarri buruzko informazioa barreiatzen eta ezagutzen dela hobetzea.



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

### 3. FORU ERANTZUKIZUNEN GIZARTE ZERBITZUEN SISTEMAKO PRESTAZIOEN EGUNGO TIPOLOGIA ETA MAPA GAIGABEZIA DUTEN PERTSONENTZAT

Gaigabezia Zerbitzuaren 2009ko Jardueren Memoriak hurrengo kopuruak biltzen ditu egindako jarduerari dagokionez:

11. TAULA. BFAKO GIZARTE EKINTZA SAILAREN ZERBITZUAK, PRESTAZIOAK ETA GASTUA GAIGABEZIAREN EREMUAN. 2009. URTEA		
BIGARREN MAILAKO EGUNEKO ZERBITZUAK ETA LANBIDE ETA EGOITZA IZAERAKOAK	PLAZA KOP.	SAILAREN GASTUA
<b>Plazak entitateekin</b>		
Lanbide Zentroetan	1.271	50.885.146,92 €
Eguneko Zentroetan	936	
Egoitza Zentroetan	890	
Aldi baterako egonaldiatarako plazak	28	
Diru-laguntza izendunak Lanbide Zentroetan egin beharreko inbertsioetarako		1.243.780,19 €
<b>PRESTAZIO EKONOMIKOAK</b>		
<b>13/1982 Legean aitortutako prestazioak (MIGIL)</b>		
Osasun laguntza eta farmaziako prestazioa		736.103,40 €
Gutxieneko diru-sarrera bermearen sorospena		
Hirugarren pertsona bati laguntzeko sorospena		
Mugikortasun eta konpentsazio sorospena, garraio gastuetarako		
<b>Kotizazio gabeko pentsioak</b>		
Elbarritasuneko kotizazio gabeko pentsioa	2009an 3.611 pentsio eman da	16.886.960,03 €
<b>Banakako laguntzak</b>		
Arreta goiztiarra	317	444.518,50 €
Ordainketa bakarreko laguntzak	4	5.857,60 €
<b>BESTE DIRU-LAGUNTZA/LAGUNTZA BATZUK</b>		
Arretari eta integrazioari zuzendutako diru-laguntzak (aisialdia salbu)		1.193.933,00 €
Aisialdi eta denbora libreko programei zuzendutako diru-laguntzak		1.566.894,00 €

*Iturria:* BFAko Gizarte Ekintza Saila.

Hurrengo tauletan Sailaren informazioa biltzen da 2010eko hasierako aurrekontuan planteatutako baliabide ezberdinetako plazei buruz:



**GAIGABEZIA BIZKAIAN:  
FORU ERANTZUKIZUNEN PRESTAZIO ETA ZERBITZUEN ERREALitatea, BEHARRAK ETA ESKAINTZA**

**12. TAULA. BFAREN GIZARTE ZERBITZUEN PRESTAZIOEN PLAZAK ETA ESTALDURA  
GAIGABEZIAREN EREMUAN (2010EKO HASIERAKO AURREKONTUA)**

EGOITZA ARRETAKO ZERBITZUAK	2010EKO PLAZAK	BIZKAIKO BIZTANLERIA OSOAREN ARABERAKO ESTALDURA (ESTALDURA PORTZENTAJEA 1.000 BIZTANLEKO) <sup>4</sup>
24 H-ko egoitza	687	0,60
16 H-ko egoitza	205	0,18
24 H-ko aldi baterako egoitza	28	0,02
Laguntza duten etxebizitzak	121	0,10
<b>EGOITZA ARRETAKO ZERBITZUAK GUZTIRA</b>	<b>1.041</b>	<b>0,90</b>
<b>EGOITZA IRAUNKORRAK</b>	<b>1.013</b>	<b>0,88</b>
<b>ALDI BATERAKO EGOITZAK</b>	<b>28</b>	<b>0,02</b>
EGOITZA ARRETAKO ZERBITZUAK	2010EKO PLAZAK	BIZKAIKO BIZTANLERIA OSOAREN ARABERAKO ESTALDURA (ESTALDURA PORTZENTAJEA 1.000 BIZTANLEKO) <sup>4</sup>
Eguneko zentroa	885	0,77
Eguneko zentroa - OIZ	99	0,09
Eguneko zentroa guztira	984	0,86
Lanbide zentroa	1.295	1,12
<b>EGUNEKO ARRETAKO ZENTROAK / LANBIDE ERAKOAK GUZTIRA</b>	<b>2.279</b>	<b>1,98</b>
BESTELAKO PRESTAZIOAK	2010EKO ONURADUNAK	BIZKAIKO BIZTANLERIA OSOAREN ARABERAKO ESTALDURA (ESTALDURA PORTZENTAJEA 1.000 BIZTANLEKO) <sup>1</sup>
ARRETA GOIZTIARRA	317	
ORDAINKETA BAKARREKO BANAKAKO LAGUNTZAK (TRABA ARKITEKTONIKOAK)	4	
<b>BANAKAKO LAGUNTZAK GUZTIRA</b>	<b>321</b>	<b>0,28</b>
Kotizazio gabeko pentsioak - KGP	6.500	
Gaigabetuaren gizarteratzea - MIGIL	379	
GSIIn konpentsazioak		
<b>GUZTIRA KGP + MIGIL</b>	<b>6.879</b>	
Mendetasuna – zaintzak familiaren inguruan	10.000	5,97
Mendetasuna – laguntzaile pertsonala	5	
<b>MENDEtasUNA GUZTIRA</b>	<b>10.005</b>	<b>8,68</b>

<sup>4</sup> Estaldura kalkulatzeko erreferentziako biztanleria: biztanleria Bizkaian, 2009an: 1.152.658.  
*Iturria:* Estatistikako Institutu Nazionala. 2009ko urtarrilaren 1eko ustiapena (2010eko otsailaren 2an eguneratua).

*Iturria:* BFAko Gizarte Ekintza Saila.

Jarraian datozen taulek informazio xehatua biltzen dute Sailak eguneko arretako eta egoitza izaerako laguntza plazen banaketari buruz, Gizarte Ekintzako Eskualdeak gorabehera egoera zein den eta hartzaileen gaigabezia mota zein den aintzat hartuta:



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

**13. TAULA. BFAREN GIZARTE ZERBITZUEN EGUNEKO ARRETAKO ZENTROAK ETA PLAZAK  
GAIGABEZIAREN EREMUAN (2010EKO HASIERAKO AURREKONTUA)**

GIZARTE EKINTZAKO ESKUALDEAK	TALDE HARTZAILEA										GUZTIRA		
	Gaigabezia intelektuala duten pertsonek		Autismoa eta autismoaren espektroko nahasmenduak dituzten pertsonek		Buruko gaixotasuna duten pertsonek		Garun paralisia duten pertsonek		Gaigabezia fisikoa edota organikoa duten pertsonek				
	Z	P	Z	P	Z	P	Z	P	Z	P	Z	P	%
BILBO	6	286	7	152	2	100	2	68	1	52	18	658	27,33
EZKERRALDEA- ENKARTERRIAK	11	430	0	0	6	156	4	51	0	0	21	637	26,45
IBAIZABAL- NERBIOI	5	221	1	30	2	54	0	0	0	0	8	305	12,67
BUSTURIA- URIBE	19	576	0	0	4	123	1	40	1	16	25	755	31,35
BESTELAKO ZONAK	1	11	0	0	0	0	1	11	0	0	2	22	0,91
KOKATU ZAIN <sup>5</sup>	1	23	0	0	1	8	0	0	0	0	2	31	1,29
<b>GUZTIRA</b>	<b>43</b>	<b>1.547</b>	<b>8</b>	<b>182</b>	<b>15</b>	<b>441</b>	<b>8</b>	<b>170</b>	<b>2</b>	<b>68</b>	<b>76</b>	<b>2.408</b>	<b>100,00</b>
<b>% GUZTIRA</b>		<b>64,24</b>		<b>7,56</b>		<b>18,31</b>		<b>7,06</b>		<b>2,82</b>			

**14. TAULA. BFAREN GIZARTE ZERBITZUEN EGOITZA ARRETAKO ZENTROAK ETA PLAZAK  
GAIGABEZIAREN EREMUAN (2010EKO HASIERAKO AURREKONTUA)**

*\*Zenbatu diren plazetatik batzuk lanbide erakoak, enplegu babestuko plazak eta heziketa bereziko arreta erakoak dira.*

GIZARTE EKINTZAKO ESKUALDEAK	TALDE HARTZAILEA										PRESAZKOAK		GUZTIRA		
	Gaigabezia intelektuala duten pertsonek		Autismoa eta autismoaren espektroko nahasmenduak dituzten pertsonek		Buruko gaixotasuna duten pertsonek		Garun paralisia duten pertsonek		Gaigabezia fisikoa edota organikoa duten pertsonek						
	Z	P	Z	P	Z	P	Z	P	Z	P	Z	P	Z	P	%
BILBO	7	77	0	0	1	60	0	0	0	0	0	0	8	137	13,16
EZKERRALDEA- ENKARTERRIAK	6	186	0	0	3	68	1	11	1	19	0	0	11	284	27,28
IBAIZABAL- NERBIOI	3	148	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3	148	14,22
BUSTURIA- URIBE	8	125	1	5	0	0	0	0	1	15	0	0	10	145	13,93
BESTELAKO ZONAK	18	243	1	5	0	0	0	0	0	0	0	0	19	248	23,82
KOKATU ZAIN <sup>5</sup>	0	0	0	0	1	64	0	0	0	0	1	15	2	79	7,59
<b>GUZTIRA</b>	<b>42</b>	<b>779</b>	<b>2</b>	<b>10</b>	<b>5</b>	<b>192</b>	<b>1</b>	<b>11</b>	<b>1</b>	<b>34</b>	<b>1</b>	<b>15</b>	<b>53</b>	<b>1.041</b>	<b>100,00</b>
<b>% GUZTIRA</b>		<b>74,83</b>		<b>0,96</b>		<b>18,44</b>		<b>1,06</b>		<b>3,27</b>		<b>1,44</b>			

Z: ZENTROAK P: PLAZAK

<sup>5</sup> Kokatu zain: Gizarte Ekintzako Eskualdeen artean plazaren kokalekua esleitzeko zain.  
Iturria: BFAko Gizarte Ekintza Saila.





### 3. ANALISIAREN ONDORIO OROKORRAK ETA DIAGNOSTIKOA

1. Sailak eta gaigabeziaren eremuko entitateek gaigabezia duten pertsoneri arreta emateko eta haiek sustatzeko erreferentziako eredu jakin baterantz abiatzen jarraitzearen aldeko apustua partekatzen dute: **Komunitatean Parte Hartzeko eta Bizi Kalitatea Edukitzeko Eredua**.

Plangintzako ekimen honen garapena planteatu egiten da Eredu honen aldeko identifikazio eta apustuan. Bertan, gaigabezia duten pertsonen arretan eta sustapenean datozen urteetan egin beharreko bideranzko orientazioa dago, nahiz eta pixkanakako ezarpena ibilbide luzeko proiektu anbiziodun baten ondorio izan eta horrek, noski, Plan honen indarraldia gainditzen du.

Eredu hau pixkanaka barneratzeko eta erabat finkatzeko, beharrezkoa da kultura aldaketako eta gizarte eraldaketako prozesu bat bizitzea eta foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuen sisteman esku hartzen duten funtsezko agente guztien eskuhartzea nahiz, zeharkako jardunen bitartez, gaigabezia duten pertsonak komunitatean sartzen, bertan parte har dezaten eta bizitza autonomoa izan dezaten, irisgarritasun unibertsalean eta guztiontzako diseinuan eta aukera berdintasunean eragina duten faktoreetan eragin dezaketean horiena edukitzea.

2. Datozen urteetarako behar eta eskari hazkunde indartsua zenbatetsi da prestazio eta zerbitzu mota guztietarako, horien bitartez komunitatearen ingurunean bizitza independentea garatzea erraztuko bada **Komunitatean Parte Hartzeko eta Bizi Kalitatea Edukitzeko Ereduarekin** bat etorritz.

Eredu honen esparruan, beharrezkotzat jotzen da eredu hori lortzera zuzendutako zerbitzu berrien (laguntzak ingurunean, etxebizitzak laguntzarekin, eta abar) sorrera (edo jada existitzen direnen egokitzapenak) **arrazoiz moldatzea** beste baliabide tradizional batzuekin (egoitzak, eguneko zentroak, eta abar). Horiek, bestalde, eskariaren xede izaten jarraituko dute talde honetako zati garrantzitsu baten partetik, izan ere, laguntza espezializatu hauek eskatzen jarraituko dute.

3. Beharrezkotzat jotzen da foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuen erantzun sistema hobetzea, **unibertsaltasunari, zuzentasunari, kalitateari eta pertsonan oinarritutako plangintzari dagokienez**. Hori guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintzako Plan Estrategikoaren Eginkizunarekin, Balioekin eta Ikuspegiarekin nahiz haren lehentasunezko ildoekin bat etorritz egingo litzateke.



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

Sistemaren prestazio eta zerbitzu eskaintzari dagokionez, baloratu egiten dira azken urteetan Bizkaiko Gizarte Ekintzaren eremuan ikusi diren aurrerapausoak gaigabezia duten pertsonen alde. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da prestazio eta zerbitzuen katalogoaren, eskuratze eta estaldura sistemaren hobekuntza, egokitzapen eta moldatze alderdietan aurrerantz egiten jarraitzea sistema oso, behar besteko eta laguntzako berariazko beharrekiko egokia den baterantz, horren bitartez Komunitatean Bizi Kalitatea Edukitzeko Eredurantz egite aldera:

- Prestazioen eta zerbitzuen Katalogoan egitea beharrezkotzat jotzen diren hobekuntza gehienak dauden baliabideak egokitu eta malgutzetik eta baliabideak sortu/eraldatzetik igarotzen dira, horren bitartez autonomia pertsonala eta bizitza independentea ahalbidetzeko komunitatearen ingurunean.
  - Eskuratzeko sistema, halaber, taldearen errealitatearekiko gehiago egokitzerantz bideratu behar da, haien aniztasun funtzionala gorabehera (esate baterako, sistemako prestazioak eskuratzeko balorazio sistematan). Halaber, baliabideen arteko igarotze eta mugikortasuna arindu eta malgutu behar dira.
  - Sektoreko plangintza (funtzionala eta lurraldekoa) laguntza sare oso eta nahikoa bermatzera orientatu behar da gaigabezia duten pertsona guztientzat (unibertsaltasuna eta zuzentasuna).
4. Prestazioak eta zerbitzuak gaigabezia duten pertsonen (haurtzaro eta nerabezaroa, helduak eta hondamen/zahartzea) **bizitzako ibilbideko etapa** bakoitzean berezkoak diren berariazko beharrei egokitzeko beharra igarri da, geroz eta behar handiagoa eta anitzagoa gainera. Horrela, beharrezkoa da sortzen ari diren behar hauei emango zaizkien erantzunak egokitzea edo berri batzuk bilatzea.
  5. Erakundeak garatzen aritu diren esku-hartze ereduetatik, eta pertsonan oinarritzen den plangintza eta bizi kalitate ereduak ezartzea dakarrena, baloratu egiten da beharrezkoa dela **metodologia eta tresna batzuk** edukitzea, pertsonan oinarrituriko plangintzaren ikuspegia duen parte-hartze eta bizi kalitateko eredu bat aplikatu eta jarraitzea ahalbidetzeko. Tresna hauei esker posible izango da banakako plangintza egokitzea pertsona bakoitzaren behar zehatzei, haren berezko erabakiei eta eboluzio beharrak ageri dituen bizi ibilbideari.
  6. Familia eta bizikidetzaren ereduak anizteak, familien baitan zaintzaileen zehar hartzearekin batera, familien amore emate egoerak dakartza (batez ere autonomiarako eta parte-hartzerako zailtasun gehien dituzten gaigabetu taldeen artean) eta horrek behar egoera berriak ekartzen ditu. Beharrezkoa da familiei



## ANALISIAREN ONDORIO OROKORRAK ETA DIAGNOSTIKOA

eta zaintzaileei emandako laguntza biziagotzea, komunitatearen ingurunean gaigabezia duten pertsonen autonomia pertsonala ahalbidetzeko bide gisa eta, batez ere, gaigabezia duen pertsonak bere beharrak edo bizi ibilbiderako lehen-tasunak adierazi ezin dituenean. Horrela, zaintzaileen arnasa hartzeko eta haiei laguntzeko zerbitzuak bultzatu beharko lirateke.

7. Funtsezkotzat jotzen da sistemaren agente ezberdinen aldetik kalitatean oinarritutako kudeaketa ereduak ezartzea, eta hori ikuspegi hirukoitzetik egitea: bizi kalitatea, kudeaketaren kalitatea eta kudeaketa etiko eta arduratsua. Horrek aurrerantz egitea esan nahi du, besteak beste, kalitate sistemak finkatzean, pertsonen buruzko politikan, hausnarketa eta kudeaketa etiko eta arduratsuan, eta abar.
8. Bizkaiko Foru Aldundia gizarte ekimenaren esku-hartzeari emandako laguntza garatzen ari da, horretarako eskainitako zerbitzuen zati handi bat finantzatuz. Aldundiaren eta entitate pribatuen artean, Gizarte Zerbitzuen alorrean, nagusi den harreman juridikoko ereduak elkarlan hitzarmenarena da, diru-laguntzak emateaz aparte (bai emakida egiteko ohiko prozeduraren bidetik, bai zuzenean emanez, aurrekontuetan bide izenduna erabilita). Bai Foru Aldundia, bai entitate pribatuak, orokorrean, bat datoz adieraztean beharrezkoa dela **harreman juridikoko eta lankidetzako sistema egoki bat edukitzea**:
  - Batetik, gai izan behar da Bizkaian sistemaren berezitasunei modu egokian erantzuteko eta, batez ere, gai izan behar da bertan esku hartzen duten gizarte ekimeneko entitateen iraunkortasuna bermatzeko.
  - Aldi berean zera bermatu behar da Administrazioak bete behar duen Erantzukizun Publikoko funtzioetik:
    - Zuzentasuna prestazioak eta zerbitzuak eskuratzekoan eta baliabideak behar bestekoak izatea gaigabezia duten pertsona guztientzat eta haien familientzat.
    - Objektibotasuna eta gardentasuna sistema garatzeko oinarritzat hartu diren irizpideetan.
    - Baliabide publikoak erabiltzen direnean arrazoizkotasuna, oreka eta optimizazioa bilatzea.





#### 4. ESTRATEGIA: KOMUNITATEAN PARTE HARTZEKO ETA BIZI KALITATEA EDUKITZEKO EREDURANTZ

Jarraian, Bizkaian gaigabezia duten pertsonen eta haien familien autonomia pertsonalari arreta emateko eta hura sustatzeko Estrategia jasoko da datozen urteetarako; bertan, arretaren eta esku-hartzearen erreferentziako eredu gisa Komunitatean parte hartzeko eta bizi kalitatea edukitzeko Ereduan pixkanaka sartzeko bidean planteatu diren ildo estrategikoak, helburuak eta jardunak jasotzen dira eta baita prestazio eta zerbitzu eskaintza osoa, egokia eta behar bestekoa lortzeko elementu komunak ere.

Eredu honetaranzko ibilbideak funtsezko agente guztien esku-hartzea behar duen kultura aldaketako prozesu bat eta gizarte eraldaketakoa behar duela aintzat hartuta, gizarte eraldaketako bost ardatz estrategiko identifikatu da analisi ardatz eta egitura planteamenduei dagokienez. Horiek definitzetik abiatuz, zeharkako programak definitu dira horiek aplikatzeko, bakoitza bere helburu, jardun eta ebaluazio adierazleekin bete diren edo ez ikusteko (2010-2013).

Aldaketa prozesu horretan gizarte eraldaketako bost ardatz estrategiko identifikatzen ditugu:

- **Zeharkako izaera duten bi ardatzek**, foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuen sistemak gizarte bizkaitar osoari zuzendu beharreko jardunak hartuko dituzte. Oinarrizko premisa izango da kultura aldaketarako beharrezkoa dela gizarte (erakundeak, administrazioak eta botere publikoak, agente ekonomikoak eta gizarte agenteak, enpresak, ikastetxeak, osasunaren alorrekoak, eta abar) aniztasuna barneratzearen alde eta aldaketa prozesuan eraginkortasunez esku harraraztearen alde jartzea:

##### **A. Bizitza autonomia komunitatean, gizarteratzea eta parte-hartze aktiboa:**

Bizkaian gaigabezia duten pertsonen ahalik eta autonomia handiena, gizarteratzea eta komunitatean parte-hartze aktiboa lortzeko baldintza egokiak sustatzea.

##### **B. Irisgarritasun unibertsala, guztiontzako diseinua eta aukera berdintasuna:**

Irisgarritasun unibertsal eraginkorra eta guztiontzako diseinua sustatzea, eta baita aukera berdintasuna eta tratu egokia eta bereizkeriarik gabekoa ere gaigabezia duten pertsonenik.

- **Barne izaerako hiru ardatz**, foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuen sisteman oinarrituta eta haien etengabeko hobekuntzarantz orientatuta eta funtsezko agente guztien esku-hartzea edukiz (Gizarte Ekintza Saila bera, gaigabezia duten pertsonak eta haien familiak, haien ordezkari diren edota zerbitzuak ematen dizkieten entitateak, profesionalak, boluntarioak):



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

**C. Gizarte zerbitzuen unibertsaltasuna eta zuzentasuna horiek eskuratzerakoan:**

Unibertsaltasuna eta gaigabezia duten pertsonen eta haien familiei zuzendutako foru erantzukizuneko prestazio eta zerbitzuak berdintasun baldintzetan eskuratze-ko behar besteko baldintzak eta baldintza egokiak sustatzea.

**D. Kalitatea eta pertsonan oinarritutako plangintza:**

Komunitatean parte hartzeko eta bizi kalitatea edukitzeko ereduaren ezarpenean aurrerantz egitea, eta baita sistemaren esku-hartze ereduaren barruan pertsonan oinarritutako plangintza metodologian ere.

**E. Elkarlana eta elkarriketa hirugarren sektorearekin:**

Gizarte ekimeneko entitateen elkarlana bultzatzea foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuen sistemaren orientazio eta hedapenean (zerbitzuak ematea, plangintza, berrikuntza eta etengabeko hobekuntza...) eta elkarriketa zibila eta gizarte ekimeneko entitateen interes orokorreko bestelako jardunak ere bultzatzea.

Ardatz horietako bakoitzari dagokionez, jarraian bakoitzaren kontzeptua eta benetan aplikatzeko dauden zeharkako programak biltzen dira, bakoitza bere helburuekin, helburu horiek lortzeko jardunekin eta planteatu diren jarduerak bete diren edo ez ebaluatzeko adierazleekin.

Jarraian datorren taulak laburbildu egiten du Ardatz Estrategikoen eta horiek aplikatzeko kasu bakoitzean planteatu diren Zeharkako Programen arteko elkarrekotasuna, ondoren garatzekoak izango direnak:

Bizkaian Gaigabezia duten Pertsonen Parte-hartzerako eta Bizi Kalitaterako Plana (2010-2013) onetsita dagoelarik, hura martxan jartzen hasiko da. Horretarako, barreiapen jardun ezberdinak egingo dira, eta baita haien ezarpen eta garapena lagunduko nahiz haren gaineko jarraipena, ebaluazioa eta eguneratzea egingo ere.

GIZARTE ERALDAKETAKO ARDATZ ESTRATEGIKOAK	APLIKAZIORAKO ZEHARKAKO PROGRAMAK
<b>A ARDATZA:</b> Bizitza autonomia komunitatean, gizarteratzea eta parte-hartze aktiboa.	Komunitatean autonomia pertsonala, gizarteratzea eta parte-hartzea lagundu eta sustatzeko programa.
<b>B ARDATZA:</b> Irisgarritasun unibertsala, diseinua guztiontzat eta aukera berdintasuna.	Irisgarritasun unibertsala eta aukera berdintasuna sustatzeko programa.
<b>C ARDATZA:</b> Gizarte zerbitzuen unibertsaltasuna eta zuzentasuna horiek eskuratzerakoan.	Zerbitzuen unibertsaltasunerako eta horiek eskuratzerakoan zuzentasuna egoteko programa.
<b>D ARDATZA:</b> Kalitatea eta pertsonan oinarritutako plangintza.	Kalitaterako eta pertsonan oinarritutako plangintzarako programa.
<b>E ARDATZA:</b> Elkarlana eta elkarriketa hirugarren sektorearekin.	Programa elkarlanerako eta elkarriketa edukitzeko hirugarren sektorearekin.



## 5. HELBURUAK ETA JARDUNAK

### A ARDATZA: BIZITZA AUTONOMOA KOMUNITATEAN, GIZARATERATZEA ETA PARTE-HARTZE AKTIBOA

#### DEFINIZIOA ETA EDUKIA

Bizkaian gaigabezia duten pertsonen ahalik eta autonomia handiena, gizarateratzea eta komunitatean parte-hartze aktiboa lortzeko baldintza egokiak sustatzea.

Hurrengo ezaugarriak izango dituen Sistema batean aurrerantz egiteko behar diren alderdiak biltzen ditu:

- Gaigabezia duten pertsonen zera ahalbidetuko diena:
  - Ahalik eta autonomia pertsonal handiena eta bizitza independentea.
  - Trebetasun eta gaitasun pertsonalen (jabekuntza) garapen ahalik eta handiena, erabaki ahalmena baliatu ahal izateko beren existentziaren gainean eta erabateko garapena lortu ahal izateko bizitzako ibilbidean bizitzako proiektu pertsonal bati jarraiki eta nortasunaren garapen askerako eskubidearekin bat etorrira.
  - Gizarateratzea erabat.
  - Aniztasuna onartzea normalkuntzaren bidetik.
  - Gaigabezia duten pertsonen parte-hartze aktiboa komunitatearen bizitzako esparru guztietan.
  - Ohiko ingurunean mantentzea eta bertan arreta eskaintzea.
  - Komunitatearen baliabideak dinamizatu eta aprobetxatzea.
- Ahalik eta gehien maximizatu behar du komunitatearen ingurunean baliabideak erabiltzen direla, batez ere biztanleria osoari zuzendutako horiek eta, halaber, foru erantzukizuneko zerbitzu sistemaren deszentralizazioa, haien hurbiltasuna eta beharrezkoa denean zona bakoitzeko ezaugarrietara egokitzea bultzatu behar du. Horrela, baliabideetara iristearen alde eta pertsonak bizikidetzako ohiko ingurunean geratzearen alde egingo da.

Hau guztia posible izateko, beharrezkoa da pertsonen benetako aukera edukitzea eskaintza anitza eta bere beharrekiko egokia eskuratzeko beren komunitatearen ingurunean.

#### ARAUDI ETA KONTZEPTU AIPAMENAK (I)

- Gaigabezia duten pertsonen eskubideei buruzko NBEren Konbentzioa: Gizarte eta Aniztasunaren Eredua. Gainera, besteak beste: 3.a) eta 19. art.ak.
- Europar Batasunaren Kontseiluaren 2008ko martxoaren 17ko Ebazpena, EBn gaigabezia duten pertsonen egoerari buruzkoa.
- Gaigabezia duten pertsonen aukera berdintasunari, bereizkeria ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legearen 2.a) (bizitza independentea), 2.b) (normalkuntza), 8. eta 9. (pertsonen erabateko garapenerako ekintza positiboko neurriak) artikulak.



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

**A ARDATZA: BIZITZA AUTONOMOA KOMUNITATEAN, GIZARTERATZEA  
ETA PARTE-HARTZE AKTIBOA**

**ARAUDI ETA KONTZEPTU AIPAMENAK (II)**

- FNS 2001eko erreferentzia teorikoak eta Bizi Kalitatearen Eredua.
- 39/2006 Legea, autonomia pertsonala eta mendetasun egoeran dauden pertsoneri arreta ematekoa: 3. eta 13. art.ak, besteak beste.
- 6.1., 7. eta 8. art.ak, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea.
- Gizarte Ekintza Sailaren II. Plan Estrategikoko Eginkizuna, Ikuspegia eta Balioak. Besteak beste, gizarte barneratzailea posible egingo duten politika eta ekintza integratzaile eta normalizatzaileak garatzeko aukera jasotzen da.
- FNS 2001eko erreferentzia teorikoak eta Bizi Kalitatearen Eredua.

**A ARDATZA APLIKATZEKO PROGRAMA:  
KOMUNITATEAN AUTONOMIA PERTSONALA, GIZARTERATZEA  
ETA PARTE-HARTZE AKTIBOA LAGUNDU ETA SUSTATZEKO PROGRAMA (I)**

**1. HELBURUA: Autonomia pertsonalaren alde egiten duten baldintzak lortzean aurrerantz egitea (I)**

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA			
		2010	2011	2012	2013
<b>A.1.1.</b> Autonomia pertsonala sustatzeko programak garatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Programa kopurua.</li> <li>• Onuradun kopurua.</li> </ul>				
<b>A.1.2.</b> Gizarte laguntzako lanak egitea gaigabezia duten pertsonentzat <sup>6</sup> .	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Laguntzaile pertsonalaren irudia garatzea (laguntzaile pertsonalaren profila definitzea eta haren irudia martxan jartzea).</li> <li>• Atenditutako pertsona kopurua.</li> </ul>				
<b>A.1.3.</b> Gizatek-eko jarduerak finkatu eta garatzen jarraitzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizatek-eko jardueretan (bilerak oinarrizko gizarte zerbitzuekin, beste agente batzuekin, eta abarrekin) parte hartu duen entitate kopurua, Gizarte Ekintzako Eskualdeka.</li> <li>• Gizatek-eko jardueretan parte hartu duen profesional kopurua.</li> <li>• Gizatek-ek dituen laguntza produktuei buruzko informazioa eskuratu duen entitate kopurua (jardueretan parte hartzea) eta bazkide eta erabiltzaileentzako orientazio ekintzak egin dituztenak.</li> </ul>				

<sup>6</sup> Zerbitzuen unibertsaltasunerako D Ardatzean ere sartu ahalko litzatekeen jarduera bat bada ere, A Ardatz honetan jaso da autonomia pertsonalean inpaktu berezia duelako.





## HELBURUAK ETA JARDUERAK

### A ARDATZA APLIKATZEKO PROGRAMA: KOMUNITATEAN AUTONOMIA PERTSONALA, GIZARTERATZEA ETA PARTE-HARTZE AKTIBOA LAGUNDU ETA SUSTATZEKO PROGRAMA (II)

#### 1. HELBURUA: Autonomia pertsonalaren alde egiten duten baldintzak lortzean aurrerantz egitea (II)

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA			
		2010	2011	2012	2013
<b>A.1.4.</b> Laguntza produktuentzako laguntza sistema etengabe ebaluatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ebaluazio txostenak.</li> </ul>				
<b>A.1.5.</b> I+G+B ildoak babestea gaigabezia duten pertsonentzako laguntza teknikoetan eta haiei laguntzeko teknologietan.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Egindako ekintzak.</li> <li>Esku hartzen duten ikerketa zentroak.</li> </ul>				

#### 2. HELBURUA: Komunitatean gaigabezia duten pertsonen bizitza autonomia sustatzea, horretarako ezagutza edukiz eta praktika onak garatuz

<b>A.2.1.</b> Komunitatean bizitza autonomia garatzean eragina duten faktoreak eta baldintzak aztertzea. Batez ere talde ahulenetan.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Egindako azterlana.</li> <li>Talde ahulenak indartzeko neurriak identifikatzea.</li> </ul>				
<b>A.2.2.</b> Ezagutza sortzea A.2.1. ekintzan igarritako faktore eta baldintzen gainean	<ul style="list-style-type: none"> <li>Barreiapeneko ekimen kopurua (saioak, jardunaldiak, eta abar)</li> </ul>				
<b>A.2.3.</b> Gaigabezia duten pertsonen eta haien familiek edota zaintzaileek baliabideak eskuratu eta haiek erabiltzeko eta komunitateko ekimenetan parte hartzeko praktika onak identifikatu, sustatu eta barreiatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Identifikatutako praktika on kopurua.</li> <li>Entitateekin, udalekin... elkarlanean sustatu den praktika on kopurua.</li> <li>Ekimen kopurua identifikatu diren praktika onak barreiatzeko.</li> </ul>				

#### 3. HELBURUA: Aniztasuna onartzearen alde egitea, normalkuntzaren, gizarteratzearen eta gaigabezia duten pertsonen gizarte bizkaitarraren garapenean duten parte-hartzea aktiboa izatearen bidetik (I)

<b>A.3.1.</b> Gaigabezia duten pertsonen eskubide osoko herritar direla aintzat hartzea sustatzeko jarraibideak landu eta barreiatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Landutako jarraibideak</li> </ul>				
	<ul style="list-style-type: none"> <li>Barreiatutako ale kopurua.</li> <li>Barreiapenerako egindako ekintza kopurua.</li> </ul>				



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

**A ARDATZA APLIKATZEKO PROGRAMA: KOMUNITATEAN AUTONOMIA PERTSONALA, GIZARTERATZEA ETA PARTE-HARTZE AKTIBOA LAGUNDU ETA SUSTATZEKO PROGRAMA (III)**

**3. HELBURUA:** Aniztasuna onartzearen alde egitea, normalkuntzaren, gizarteratzearen eta gaigabezia duten pertsonen gizarte bizkaitarraren garapenean duten parte-hartzea aktiboa izatearen bidetik (II)

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA			
		2010	2011	2012	2013
<b>A.3.2.</b> Kultura Sailarekin eta Bizkaiko Kirol Egokituaren Federazioarekin elkarlanean aritzea gaigabezia duten pertsonentzako kirola garatzerakoan.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Elkarlanaren ondorioak garatzea.</li> </ul>				

**4. HELBURUA:** Gizarte eraldaketa bultzatzea gizarte parte-hartzearen bitartez

<b>A.4.1.</b> Gaigabeziaren esparruan boluntariotza sustatzea, gizartearen agente eraldatzaile den partetik.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Boluntario kopuruaren bilakaera gaigabeziaren esparruan.</li> <li>• Bolunta-ren bitartez edo entitateek esparru honetan boluntariotza sustatzeko garatutako jardun kopurua.</li> </ul>				
--	---	--	--	--	--

**B ARDATZA: IRISGARRITASUN UNIBERTSALA, DISEINUA GUZTIONTZAT ETA AUKERA BERDINTASUNA**

**DEFINIZIOA ETA EDUKIA**

Irisgarritasun unibertsal eraginkorra eta guztiontzako diseinua sustatzea, eta baita aukera berdintasuna eta tratu egokia eta bereizkeriarik gabekoa ere gaigabezia duten pertsonetarako.

Hurrengoetarako behar diren alderdiak biltzen ditu: gaigabezia duten pertsonen eta haien familiei emandako erantzuna hobetzeko, beste edonork bezala bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta gizartean aukera berdintasunean parte hartzeko desabantailak saihestu edo orekatzeko; prestazioak eta zerbitzuak zuzentasunezko irizpideei jarraiki eskuratzen direla bermatzeko, baldintza pertsonalei edo gizartekoei uztartutako bereizkeriarik gabe eta ekintza positiboko neurriak eta aukera berdintasunezko eta tratu berdintasunezko neurriak aplikatzearen kaltetan izan gabe.

Hori guztia beren jardunetan zera aplikatuz: sexu berdintasunaren ikuspegia eta sexu aniztasunarena, belaunaldi arteko eta kultura arteko ikuspegiak bezalaxe; tratu egokia eta bereizkeriarik gabekoa; irisgarritasun unibertsala eta guztiontzako diseinua azpiegitura eta gailuetan, komunikazioan eta ulermenean.



## HELBURUAK ETA JARDUERAK

### B ARDATZA: IRISGARRITASUN UNIBERTSALA, DISEINUA GUZTIONTZAT ETA AUKERA BERDINTASUNA

#### ARAUDI ETA KONTZEPTU AIPAMENAK

- Gaigabezia duten pertsonen eskubideei buruzko NBERen Konbentzioa: Besteak beste: berdintasunari eta bereizkeria ezari buruzko 5. art., irisgarritasunari buruzko 9. art. eta mugikortasun pertsonalari buruzko 20. art.
- Gaigabezia duten pertsonen aukera berdintasunari, bereizkeria ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legearen 1., 2.c), 2.d) art.ak, II. Kapitulua eta hura garatzeko beste xedapen batzuk irisgarritasun baldintzei dagokienez.
- Sailaren Balioak (bere Plan Estrategikoan): horien artean pertsona guztientzako irisgarritasuna eta diseinua biltzen dira.
- Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 7.c) art. (berdintasuna eta zuzentasuna).

### B ARDATZA APLIKATZEKO PROGRAMA: IRISGARRITASUN UNIBERTSALA ETA AUKERA BERDINTASUNA SUSTATZEKO PROGRAMA (I)

1. HELBURUA: Irisgarritasun unibertsala eta guztiontzako diseinua sustatzea Bizkaia osoan, eta baita aukera berdintasuna eta tratu egokia eta bereizkeriarik gabekoa ere gaigabezia duten pertsonetarako (I)

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA			
		2010	2011	2012	2013
<b>B.1.1.</b> Gizarte komunikazioko, prestakuntzako eta sentsibilizazio-ko plan bat landu eta aplikatzea irisgarritasun unibertsalaren, guztiontzako diseinuaren eta aukera berdintasunaren alorretan, zeharkakotasunetik eta existitzen diren egitura eta sareak erabiliz barreiapen bide gisa.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lantzean eta barreiapenean esku hartzen duen Sail kopurua.</li> <li>• Lantzean eta barreiapenean parte hartzen duen entitate kopurua.</li> <li>• Egindako komunikazio, prestakuntza eta sentsibilizazio ekintza kopurua.</li> </ul>				
<b>B.1.2.</b> Garraio Sailarekin elkarlanean aritzea, Bizkaian Garraio Irisgarriaren Plan Estrategikoa garatzerakoan	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Egindako ekintzak.</li> </ul>				
<b>B.1.3.</b> Eusko Jaurlaritzaren Irisgarritasun Batzordean parte hartzen jarraitzea, jardunak ingurune guztien irisgarritasun unibertsal eraginkorretan bideratzen direla sustatuz.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Abian jarritako ekimenak.</li> </ul>				



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

**B ARDATZA APLIKATZEKO PROGRAMA:  
IRISGARRITASUN UNIBERTSALA ETA AUKERA BERTINTASUNA SUSTATZEKO PROGRAMA (II)**

**1. HELBURUA:** Irisgarritasun unibertsala eta guztiontzako diseinua sustatzea Bizkaia osoan, eta baita aukera berdintasuna eta tratu egokia eta bereizkeriarik gabekoa ere gaigabezia duten pertsonetarako (II)

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA			
		2010	2011	2012	2013
<b>B.1.4.</b> Zeharkakotasun mekanismoak sustatzea Sail eta Erakundeen artean, gaigabeziarentzat eragina duten jardunetan.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sail arteko akordio eta jardun kopurua.</li> <li>Jorratutako eremu kopurua: Osasuna, gizarte zerbitzuak, hezkuntza, etxebizitza, enplegua...</li> </ul>				
<b>B.1.5.</b> arduak garatzea eremu honetan indarrean dauden zehapen araubideak ezagutu eta aplikatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Egindako jardun kopurua (arau-hausteen eta zehapenen araubidea ezagutzera orientatuta edo prebentzio eta sentsibilizazioko bestelako ekintzak; arau-haustek antzematearekin eta zehapen araubidearen aplikazioarekin uztartuta).</li> </ul>				
<b>B.1.6.</b> Bereizkeria bikoitzeko egoerak identifikatzea (gaigabezia-immigrazioa, gaigabezia-emakumea, eta abar) eta formula egokiak aztertzea pertsona hauen aukera berdintasuna sustatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Identifikatu diren egoerak eta arazoak.</li> <li>Abian jarritako ekimenak.</li> <li>Identifikatu diren formulak edo bultzatu beharreko neurriak.</li> </ul>				
<b>B.1.7.</b> Gaigabezia duten pertsonen bereizkeria eta estigmatizazio egoerak jorratzera eta horiek prebenitzera orientatutako jarduerak bultzatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Egindako jardun kopurua sentsibilizatorako, prestakuntzarako, salaketarako eta eskubideak benetan baliatzen direla sustatzeko.</li> </ul>				



## HELBURUAK ETA JARDUERAK

### C ARDATZA: GIZARTE ZERBITZUEN UNIBERTSALTASUNA ETA ZUZENTASUNA HORIEK ESKURATZERAKOAN

#### DEFINIZIOA ETA EDUKIA

Unibertsaltasuna eta gaigabezia duten pertsonen eta haien familiei zuzendutako foru erantzukizuneko prestazio eta zerbitzuak berdintasun baldintzetan eskuratzeko behar besteko baldintzak eta baldintza egokiak sustatzea.

Gaigabezia duten pertsonen behar duten prestazio, zerbitzu eta laguntza orokor eta berariazkoen multzoa bermatzea lortzeko behar diren alderdiak biltzen ditu. Horiek behar bestekoak, egokiak eta gizarte beharrei eta haien aniztasun funtzionalari egokiturikoak izan behar dira. Halaber, haiek eskuratzeko elementuak eta betekizunak zuzentasunezko eta bereizkeriarik gabeko baldintzetan bermatzeko, baliabideen banaketa homoginoa izan behar da lurralde osoan.

#### ARAUDI ETA KONTZEPTU AIPAMENAK

- Gizarte Ekintzako Plan Estrategikoa (2008-2011): Balioen artean eta haren helburu eta jardun ezberdinetan biltzen da (2.1., 2.2., 2.3.).
- Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea. 7., 8. art.ak besteak beste (orokorrean), eta Katalogoko alderdien araudia, prestazioak, plangintza, eta abar.

### C ARDATZA APLIKATZEKO PROGRAMA: PRESTAZIOAK ETA ZERBITZUAK UNIBERTSALAK IZATEKO PROGRAMA (I)

1. HELBURUA: Gizarte zerbitzuen sarearen baldintza eta estaldura hobekia lortzen aurrerantz egitea, gizarte zerbitzuak unibertsalak izateko eta gaigabeziaren eremuan horiek eskuratzeko zuzentasunez egin dadin (I)

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA			
		2010	2011	2012	2013
<b>C.1.1.</b> BFaren Prestazio eta Gizarte Zerbitzu Zorroa landu eta aplikatzea gaigabeziaren eremuan, 1. Eranskinean aurreikusitako zerbitzu zerrenda garatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Landu eta aplikatutako Prestazio eta Gizarte Zerbitzu zorroa.</li> </ul>				
<b>C.1.2.</b> Gaigabeziaren alorrean foru erantzukizunekoak diren gizarte zerbitzuen sistemaren zerbitzuek dakarten kostua aztertzea, behar ezberdinekin bat datozen modulu ekonomikoak zehazteko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Landutako kostu azterketa.</li> </ul>				



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

**C ARDATZA APLIKATZEKO PROGRAMA:  
PRESTAZIOAK ETA ZERBITZUAK UNIBERTSALAK IZATEKO PROGRAMA (II)**

**1. HELBURUA:** Gizarte zerbitzuen sarearen baldintza eta estaldura hobekuntza lortzen aurrerantz egitea, gizarte zerbitzuak unibertsalak izateko eta gaigabeziaren eremuan horiek eskuratzea zuzentasunez egin dadin (II)

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA			
		2010	2011	2012	2013
<b>C.1.3.</b> Metodologia diseinatu eta garatzea, programazio sektoriala eta funtzionala egiteko foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuen sistemako prestazio eta zerbitzuen gainean. Hori egokia izan beharko da gaigabezia bakoitzarekiko eta zona bakoitzeko berariazko beharrekiko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Landutako metodologia.</li> <li>• Prestazio eta zerbitzu ezberdinetako sektore eta lurralde estaldura mailen bilakaera.</li> </ul>				
<b>C.1.4.</b> Egoitzako plaza kopurua eta eguneko zentroko plaza kopurua areagotzea eta aniztea, koherentzia mantenduz komunitatean parte hartzeko eta bizi kalitatea edukitzeko ereduarekin.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Egoitzetako plazen onuradun den pertsona kopurua.</li> <li>• Eguneko zentroetako plazen onuradun den pertsona kopurua.</li> <li>• Egoitzetako plazetan eskuratutako estaldura mailaren bilakaera.</li> <li>• Eguneko zentroetako plazetan eskuratutako estaldura mailaren bilakaera.</li> </ul>				
<b>C.1.5.</b> Plazak areagotzea lanbide zentroetan.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Onuradun kopurua.</li> <li>• Lortutako estaldura mailaren bilakaera.</li> </ul>				
<b>C.1.6.</b> Beharrezkoa den kasuan tutoretza zerbitzua baliatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tutoretzapean jarritako pertsona kopurua.</li> </ul>				
<b>C.1.7.</b> Intentsitate baxuko eta egonaldi luzeko baliabideak eta egoitza plazak areagotzea, gizarte beharrak eta behar soziosanitarioak atentitzeko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sortutako plaza kopurua.</li> </ul>				



## HELBURUAK ETA JARDUERAK

### C ARDATZA APLIKATZEKO PROGRAMA: PRESTAZIOAK ETA ZERBITZUAK UNIBERTSALAK IZATEKO PROGRAMA (III)

**2. HELBURUA:** Zerbitzuak gaigabezia duten pertsonen beharren bilakaerari egokitzea, haien garapena pixkanaka komunitatean parte hartzeko eta bizi kalitatea edukitzeko eredu sartzan joaterantz orientatuz (I)

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA			
		2010	2011	2012	2013
<b>C.2.1.</b> Baliabideak gaigabezia duten pertsonen beharren bilakaerari egokitzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Egokitzapenerako egindako jardunak.</li> <li>• Egindako egokitzapenen onuradun diren pertsonak (ordu malgutasuna eguneko zentroetan, eta abar)</li> </ul>				
<b>C.2.2.</b> Berriazko laguntza duten etxebizitza zerbitzuak indartu eta garatzea komunitatearen ingurunean, eta bizitza autonomoko zerbitzuak indartu eta garatzea norberaren etxebizitzan bertan.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Onuradun kopurua.</li> <li>• Sortutako laguntza duen etxebizitza zerbitzu kopurua.</li> <li>• Sortutako laguntza duen apartamentu kopurua.</li> </ul>				
<b>C.2.3.</b> Bizitza independenteko programen garapena zabaltea gaigabezia duten pertsonentzat.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Garatutako programa kopurua.</li> <li>• Xede honekin finkatutako hitzarmen kopurua.</li> <li>• Onuradun kopurua.</li> </ul>				
<b>C.2.4.</b> Familiei eta zaintzaileei laguntzeko (prestakuntza, laguntza psikologikoa) eta arnasa hartzeko zerbitzuak bultzatzen jarraitzea. Horretarako, behar bezala antolatu behar da gaigabeziaren alorreko gizarte ekimeneko entitateen eta udal erantzukizuneko zerbitzuen arteko elkarlana.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Onuradun kopurua.</li> </ul>				
<b>C.2.5.</b> Aisialdi eta denbora libreko eskaintzak garatzea gaigabezia duten pertsonentzat, eta hori entitateekin hitzarmenak eratzearen bitartez egitea. Hala badagokio, horrelako programak sustatu beharko dira.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Urtero atenditutako pertsona kopurua.</li> <li>• Diruz lagundutako hitzarmen edo programa kopurua.</li> <li>• Honetarako jarritako aurrekontua.</li> </ul>				



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

**C ARDATZA APLIKATZEKO PROGRAMA:  
PRESTAZIOAK ETA ZERBITZUAK UNIBERTSALAK IZATEKO PROGRAMA (IV)**

**2. HELBURUA:** Zerbitzuak gaigabezia duten pertsonen beharren bilakaerari egokitzea, haien garapena pixkanaka komunitatean parte hartzeko eta bizi kalitatea edukitzeko ereduak sartzen joaterantz orientatuz (II)

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA			
		2010	2011	2012	2013
<b>C.2.6.</b> Hezkuntza Sailarekin batera Arreta Goiztiarraren zerbitzua 6 urteetara arte zabaltzeko aukera aztertzea beharrezkoa den kasurako. Zerbitzu hau eraginkorra izateko bestelako neurriak ere aztertzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Xede honekin egindako jardun kopurua.</li> </ul>				
<b>C.2.7.</b> Gaigabezia duten pertsonentzako egoitza zentroetan aldi baterako harrerarako plaza disponibilitatea areagotzea, larrialdi kasuetan nahiz igarotze egoeretan arreta emateko erabiltzeko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aldi baterako harrerarako plaza kopuruaren bilakaera.</li> <li>• Onuradun kopurua.</li> </ul>				
<b>C.2.8.</b> Hala badagokio, gaigabezia anitzak dituzten pertsonen beharrekiko egokiak diren baliabideak malgutu eta konbinatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Neurri hauek behar izan ditzaketen talde gisa identifikatu diren taldeak.</li> <li>• Hobekuntza hauen onuradun den pertsona kopurua.</li> </ul>				
<b>C.2.9.</b> Sortzen ari diren beharrak identifikatzea eta erantzuteko formula egokiak aztertzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Igarritako behar berriak.</li> <li>• Xede honekin egindako jardun kopurua.</li> <li>• Identifikatu diren bultzatu beharreko formulak.</li> </ul>				
<b>C.2.10.</b> Gaigabeziari arreta ematearen esparruan erabilera anitzeko landa zentroen irudia aplikatzeko aukera aztertzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Xede honekin landutako txostenak.</li> </ul>				





## HELBURUAK ETA JARDUERAK

### C ARDATZA APLIKATZEKO PROGRAMA: PRESTAZIOAK ETA ZERBITZUAK UNIBERTSALAK IZATEKO PROGRAMA (V)

#### 3. HELBURUA: Baliabideak eskuratzeko sistema hobetzea

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA			
		2010	2011	2012	2013
<b>C.3.1.</b> Ebaluazio eta orientazio tresnak garatzea, baliabideak eta zerbitzuak egoki esleitzeko gaigabezia duten pertsonen laguntza beharraren bilakaera gorabehera.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Landutako tresna.</li> </ul>				
<b>C.3.2.</b> Prozesuen egungo fluxuak aztertzea, baliabideak eskuratzeko eta horiek arindu eta sinplifikatzea ahalbidetzen duten formulak identifikatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aztertutako fluxuak.</li> <li>• Identifikatu diren formulak.</li> <li>• Prozesu sinplifikatu kopurua.</li> </ul>				
<b>C.3.3.</b> Baliabide batetik bestera igarotzea eta mugitzea eta horien erabilera malgutzea hobea izan dadin formulak aztertu eta identifikatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Identifikatu diren formulak.</li> </ul>				
<b>C.3.4.</b> Adin mugak kentzen direla sustatzea baliabideak eskuratzeko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Neurri hau biltzen duen araudi garapen kopurua.</li> <li>• Egindako jardunak.</li> </ul>				

### D ARDATZA: KALITATEA ETA PERTSONAN OINARRITUTAKO PLANGINTZA

#### DEFINIZIOA ETA EDUKIA

Komunitatean parte hartzeko eta bizi kalitatea edukitzeko ereduaren ezarpenean aurrerantz egitea, eta baita Sistemaren esku-hartze ereduaren barruan pertsonan oinarritutako plangintza metodologian ere.

Sistemaren ezarpenean aurrerantz egiteko behar diren alderdiak biltzen ditu:

- Pertsonan oinarritutako bizi kalitatearen eta plangintzaren erdua, esku-hartze ereduaren barruan nahiz kasu bakoitzerako egokiena izango den esku-hartze pertsonalizatu mota diseinatu eta garatzeko, pertsonaren edota familiaren behar berezietara egokituta, bere egoeraren ebaluazio osoan oinarrituta. Koherentzia eta arreta ibilbideen jarraitutasuna eskaini behar dira eta hura etengabekoa izan behar da pertsonen bizi ibilbideko etapa guztietan.
- Gorentasuna kudeaketaren kalitatean, zerbitzuen kalitatean eta antolamenduen kalitatean.
- Konpromiso etikoa eta balioak pertsonakiko, familiekiko eta erakundeekiko, Sistemako agente ezberdinen aldetik.



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

**D ARDATZA: KALITATEA ETA PERTSONAN OINARRITUTAKO PLANGINTZA**

**ARAUDI ETA KONTZEPTU AIPAMENAK**

- Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea: 8.c) artikulua (esku-hartze pertsonalizatuko eredu) eta 76.etik 78.era bitartekoak (Sistemaren Kalitatea).
- Gizarte Ekintza Sailaren Balioetako bat da bere Plan Estrategikoan.
- Bizi Kalitatearen Ereduaren erreferentzia teorikoak: Bizi Kalitatea, Kudeaketa kalitatea eta Etika.

**D ARDATZA APLIKATZEKO PROGRAMA:  
KALITATERAKO ETA PERTSONAN OINARRITUTAKO PLANGINTZARAKO PROGRAMA (I)**

**1. HELBURUA: Parte hartzeko eta bizi kalitatea edukitzeko eredu sartzean eta pertsonan oinarritutako plangintzan aurrerantz egitea (I)**

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA			
		2010	2011	2012	2013
D.1.1. Prestakuntza ekintzak garatzea komunitatean parte hartzeko eta bizi kalitatea edukitzeko ereduaren gainean, sektoreko entitateekin elkarlanean arituz.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Egindako prestakuntza ekintza kopurua.</li> </ul>				
D.1.2. Metodologia eta tresnak sortzea, parte hartzeko eta bizi kalitatea edukitzeko ereduaren aplikazioa eta jarraipena ahalbidetzeko pertsonan oinarritutako plangintzaren ikuspegiarekin.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sortutako metodologia eta tresnak.</li> </ul>				
D.1.3. Saiakera esperientziak garatzea, D1.2. jardunean aipatutako metodologia eta tresnak aplikatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Saiakera esperientzian parte hartzen duen entitate kopurua.</li> <li>• Saiakera esperientzien onuradun den pertsona gaigabetu kopurua.</li> <li>• Egindako metodologiaren aplikazioaren kostuaren ebaluazioa.</li> </ul>				



## HELBURUAK ETA JARDUERAK

### D ARDATZA APLIKATZEKO PROGRAMA: KALITATERAKO ETA PERTSONAN OINARRITUTAKO PLANGINTZARAKO PROGRAMA (II)

#### 1. HELBURUA: Parte hartzeko eta bizi kalitatea edukitzeko eredia sartzean eta pertsonan oinarritutako plangintzan aurrerantz egitea (II)

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA			
		2010	2011	2012	2013
<p><b>D.1.4.</b> Kasu koordinazioan gaigabeziaren eremuko gizarte ekimeneko entitateen parte-hartzea bermatzea pertsonan oinarritutako plangintzaren ikuspegitik (foru erantzukizuneko zerbitzuetan).</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gizarte ekimeneko entitateek kasu koordinazioan parte hartzen duten kasu kopurua: beharren ebaluazioa, arreta pertsonalizatuko plana lantzea, hura martxan jartzea, haren gaineko jarraipena egitea, ebaluazioa...</li> </ul>				
<p><b>2. HELBURUA: Sistemako agenteetan kudeaketaren kalitatea eta gorentasuna sustatzea, eta baita haien konpromiso etikoa eta gizarte erantzukizuna ere</b></p>					
<p><b>D.2.1.</b> Gaigabeziari arreta emateko profesional egokien profilak identifikatu eta definitzea, Hirugarren Sektorereko entitateen parte-hartzea edukita.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Identifikatzen diren eta definitzen diren profil profesionalak.</li> </ul>				
<p><b>D.2.2.</b> Kudeaketan kalitate eredu edo sistemak ezarri eta sendotzen direla sustatzea eta erakundeak etengabe hobetzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sistemak ezartzeko partidak hartzen dituen akordio, hitzarmen edo kontzertu kopurua.</li> <li>Kalitate ziurtagiriak dituen entitate kopurua (edo horren bidean daudenak).</li> </ul>				
<p><b>D.2.3.</b> Hausnarketa etikoa eta gizarte erantzukizuneko sistemak ezartzen direla sustatzea sistemako agenteen artean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kode etikoa eta hura aplikatzeko baliabideak eta moduak dituen entitate kopurua.</li> <li>Gizarte erantzukizuneko prozesuetan esku hartzen duen entitate kopurua.</li> </ul>				



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

**E ARDATZA: ELKARLANA ETA ELKARRIZKETA HIRUGARREN SEKTOREAREKIN.**

**DEFINIZIOA ETA EDUKIA**

Gaigabeziaren eremuko gizarte ekimeneko entitateen elkarlana bultzatzea foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuen sistemaren orientazio eta hedapenean (zerbitzuak ematea, plangintza, berrikuntza eta etengabeko hobekuntza...) eta elkarrizketa zibila eta gizarte ekimeneko entitateen interes orokorreko bestelako jardunak ere bultzatzea.

Hurrengoetarako jardunak biltzen ditu:

- Gizarte Ekintza Sailarekiko elkarlanaren alde egiteko foru erantzukizuneko gizarte zerbitzuen sistemaren orientazioan eta zabalkundearen, haren ibilbidearen aitortpenetik eta gaigabezia duten pertsonen eta haien familien bizi kalitatea hobetzen laguntzetik etengabeko berrikuntza eta gizarte konpromisotik.
- Elkarrizketa zibil egoki eta iraunkorra dagoela bermatzeko.
- Gizarte ekimeneko entitateek garatzen dituzten interes orokorreko jardunak laguntzeko.

**ARAUDI ETA KONTZEPTU AIPAMENAK**

- Gaigabezia duten pertsonen eskubideei buruzko NBEren Hitzarmenaren goiburua eta orientazioa: "Ezer ez guri buruz baina gu gabe" eta 29. artikulua (bizitza politikoan eta publikoan parte hartzea).
- Gobernantza Europarraren Liburu Zuria. Europako Erkidegoetako Batzordea. COM (2001) 428 azkena.
- Europako Ekintza Plana 2006-2015 delakoko 1. Ekintza Ildoa (bizitza politikoan eta publikoan parte hartzea).
- Gaigabezia duten pertsonen aukera berdintasunari, bereizkeria ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legearen 2.e) artikulua (elkarrizketa zibila).
- Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeko 7.j) artikulua: herritarren parte-hartzea.
- Gizarte Ekintza Sailaren II. Plan Estrategikoa.

**E ARDATZA APLIKATZEKO PROGRAMA:**

**PROGRAMA ELKARLANERAKO ETA ELKARRIZKETA EDUKITZEKO HIRUGARREN SEKTOREAREKIN (I)**

**1. HELBURUA:** Administrazio Publikoen eta Hirugarren Sektorearen arteko elkarlana sendotzea gaigabezia duten pertsonen eta haien familien arreta eta sustapenari dagokienez (I)

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA			
		2010	2011	2012	2013
E.1.1. Gaigabeziaren alorreko Hirugarren Sektoreko entitateekin lankidetzaren harremana sendotzea, bai erantzukizun publikoko zerbitzuak emateari dagokionez, bai interes orokorreko beste jardueren batzuei dagokienez (sentsibilizazioa, eskubideen sustapena, ikerketa, berrikuntza...).	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Babesa eskuratuko duen entitate onuradun kopurua.</li> <li>• Hitzarmen kopurua.</li> <li>• Diru-laguntza kopurua.</li> </ul>				



## HELBURUAK ETA JARDUERAK

### E ARDATZA APLIKATZEKO PROGRAMA: PROGRAMA ELKARLANERAKO ETA ELKARRIZKETA EDUKITZEKO HIRUGARREN SEKTOREAREKIN (II)

#### 1. HELBURUA: Administrazio Publikoen eta Hirugarren Sektorearen arteko elkarlana sendotzea gaigabezia duten pertsonen eta haien familien arreta eta sustapenari dagokienez (II)

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA			
		2010	2011	2012	2013
E.1.2. Harreman juridikoa eratzeko formulak aztertzea eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Legean aurreikusitako elkarlaneko esparru akordioak bultzatzea elkarlanaren bidetik garatutako jardun multzoa estaltze aldera.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Xede horrekin egindako bilera eta txosten kopurua.</li> <li>• Elkarlaneko esparru akordio kopurua.</li> </ul>				
E.1.3. Erakundeek garatutako interes orokorreko jarduerak sustatzeko neurriak bultzatzea, eta egonkortasuna ematea neurri horiei hitzarmenak formalizatzearen eta horiek elkarlaneko esparru akordioetan sartzearen bidetik	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Elkarlaneko esparru hitzarmen eta akordio kopurua.</li> </ul>				
E.1.4. Gaigabeziaren eremuan Hirugarren Sektorea sustatu eta babesteko jardunak garatzen jarraitzea, garapeneko eta gizarte parte-hartzeko elementu gisa.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaigabeziaren alorrean Hirugarren Sektorea sustatu eta babestera zuzendutako aurrekontu ekonomikoa.</li> <li>• Laguntza eskuratuko duen entitate kopurua.</li> <li>• Antolamendua sendotzeko programak edo proiektuak bultzatzea (aholkularitza, gestoria...), arreta berezia emanez talde ahulenen ordezkari diren entitateei eta sorrera berriko elkarteak bultzatuz.</li> </ul>				



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

**E ARDATZA APLIKATZEKO PROGRAMA:  
PROGRAMA ELKARLANERAKO ETA ELKARRIZKETA EDUKITZEKO HIRUGARREN SEKTOREAREKIN (III)**

**2. HELBURUA: Elkarrizketa zibil egoki eta iraunkorra dagoela bermatzea**

JARDUNAK	ADIERAZLEAK	ALDIA			
		2010	2011	2012	2013
<p><b>E.2.1.</b> Elkarrizketa zibil jarraitua garatzea Administrazioaren eta Hirugarren Sektorearen artean, horren bitartez gaigabezia duten pertsonak eta haien familiek gizartean duten parte-hartzean garapena izaten jarraitzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Elkarrizketa zibileko organo eta foroetan edo ekimenetan parte hartzen duten gaigabeziaren alorreko entitate ezberdinen kopurua.</li> <li>• Parte-hartze eta harreman foro edo organo ezberdinetan egindako jardura kopurua (Gaigabeziaren Kontseilua, besteak beste).</li> </ul>				
<p><b>E.2.2.</b> Erakundeek jardueren plangintzan, jardun berrietan, beharrak antzematean, erantzunak identifikatzean eta Sailak haiei eragiten dieten lan prozesuak diseinatzen dituenean parte har dezaten erraztasunak ematea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lan talde, foro, mintegi, galdeketa edo bestelako kontsulta sistemen kopurua, bertaratzea eskatzen dutenak nahiz teknologia berrien erabileraren bitartez egiten direnak.</li> <li>• Alderdi bakoitzean parte hartzen duen entitate laguntzaile kopurua.</li> </ul>				



## 6. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Plana barreiatzeko jardunen bitartez, lortu egin nahi da hura lantzen lagundu dutenek (batez ere parte hartzeko prozesuan taldearen beharrak nahiz hobekuntza ezberdineko proposamenak planteatuz parte hartu duten entitateek) nahiz Bizkaian gaigabezia duen pertsona multzoak eta haien familiek eta gizarte bizkaitarrak orokorrean hura ezagutzea.

Halaber, jardun zehatzak garatuko dira plan honetan aurreikusitako jarduerak bultzatzean esku-hartze berezia duten Sailaren Zuzendaritzek eta Zerbitzuek programazioko erreferentzia gisa har dezaten hura, eta haren gaineko jarraipenean, ebaluazioan eta beharrezko eguneratzean esku har dezaten.

Beharrezko ekimenak eta harremanak ere bideratuko dira kasuan kasuko bideetatik eta Planeko jardun ezberdinak eraginkortasunez aplikatzeko behar den BFaren beste sail batzuen lankidetzari dagokionez (A eta B ardatz estrategikoen orientazioaren ezaugarri den zeharkakotasunarekiko koherentzia edukiz).

Horrela, Plan honek antolamenduaren ohiko dinamikarekin duen elkarrekintza sendotu nahi da, eta aukera eman beharrezko esku-hartzea duten agente guztiei beren jardunak eraginkorrak izateko, haien gaineko jarraipenean esku hartzeko, haiek ebaluatzeko eta beharrezko eguneratzea egiteko. Etengabeko egokitzapeneko jarrera hartu behar da, taldearen beharren eta Komunitatean Parte Hartzeko eta Bizi Kalitatea Edukitzeko Eredua pixkanaka barneratzearen bilakaera gorabehera.

Plan hau argitaratu ondorengo lehenengo lana Zuzendaritza Batzordeak agiri bat egitea izango da. Bertan, agirian jasotako jardun bakoitza egin, kudeatu edo bultzatzeko erantzule nor izango den adieraziko da.

Martxan jarri ondoren eta ebaluazioa, jarraipena eta eguneratzea egiteko, hura lantzerakoan parte hartu duten eta kasu bakoitzean Plan honetan finkatutako jardunak garatzeko ardura duten Saileko Zuzendaritza eta Zerbitzuetako pertsonen erabakietan lantalde bat sortuko da.

Talde hau sei hiletik behin bilduko da gutxienez, Planaren garapenean gaineko jarraipena egiteko xede horretarako finkatzen diren adierazleen bitartez. Urtero, emaitzak ebaluatzeke txosten bat egingo da.



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERA KO**  
**ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

Ezarpenaren lehenengo bi urteak amaitzen direnean, ebaluazio saio bat egingo da eta, hala badagokio, neurriak eguneratuko dira. Horretarako, lantzerakoan parte hartu duten agente ezberdinen parte-hartzea edukiko da (batez ere gaigabeziaren esparruko gizarte ekimeneko entitateena). Ebaluazio honen emaitzak nahiz, hala badagokio, izan daitezkeen eguneratze proposamenak aintzat hartuko ditu Sailaren Zuzendaritzak, kasuan kasuko neurriak hartu ahal izateko.

Indarraldia amaitzen denean, ebaluazio saio bat egingo da. Bertan, halaber, lantzerakoan parte hartu duten agente ezberdinen parte-hartzea ere izango da. Lantaldeak Planaren ezarpen eta garapenaren ebaluazioaren kasuan kasuko txostena landuko du.





## I. ERANSKINA: FORU ERANTZUKIZUNEN ZERBITZU ETĀ PRESTAZIO ZERRENDA, BIZKAIAN GAIGABEZIA DUTEN PERTSONENTZAT ETA HAIEN FAMILIENTZAT

Jarraian, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Zorroak bilduko duen zerbitzu zerrenda ageri da, horien bitartez gaigabezia duten pertsonen arreta eta sustapena egiteko. Hura landu eta aplikatzea (Plan honetako C.1.1. Jardunean aurreikusi dena) Eusko Jaurlaritzak Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legea aplikatzeko onesten duen esparru arautzaileari jarraiki egingo da. Batez ere Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari eta EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoari dagokienez.

**Foru erantzukizuneko gizarte zerbitzue eta prestazio zerrenda, Bizkaian gaigabezia duten pertsonen arreta eta sustapenerako.**

### 1. ZERBITZUAK:

Planteatzen diren zerbitzu guztiak gaigabezia duen pertsona multzoari zuzentzen bazaizkio ere, jarraian datorren taulak aniztasun funtzionala gorabehera gaigabezia duten pertsonak nola sektorizatzen diren islatzen du. Horiek zerbitzu eta prestazio hauen eskatzaile zein neurritan izan daitezkeen zenbatesten da ageri dituzten berariazko laguntza beharrak gorabehera:

ZERBITZUAK	GAIGABEZIA DUTEN PERTSONAK *						
	1	2	3	4	5	6	7
1. Mendetasuna, gaigabezia, bazterkeria eta babesgabezia diagnostikatu eta baloratzeko zerbitzua.							
2. Autonomian mugak edukitzetik eratorritako beharrak atenditzeko zerbitzua edo eguneko zentroa.							
3. Lanbide zerbitzua edo zentroa.							
4. Egoitza zerbitzua.							
5. Laguntza duen etxebizitza zerbitzua.							
6. Arnasa hartzeko zerbitzua.							
7. Bizitza independentean laguntzeko zerbitzua.							
8. Laguntza teknikoaren zerbitzua.							
9. Ezintasuna duten helduentzako tutoretza zerbitzua.							
10. Garraio egokituko zerbitzua.							
11. Gizarte eta hezkuntzako esku-hartze zerbitzuak edota familien esku-hartze psikosoziala edukitzekoak.							
12. Arreta goiztiarreko zerbitzua.							

\* GAIGABEZIAK DUTEN PERTSONAK

1. Gaigabezia fisikoa edota organikoa duten pertsonak | 2. Gaigabezia sentsoriala duten pertsonak
3. Gaigabezia intelektuala duten pertsonak | 4. Autismoa eta garapen nahasmenduak dituzten pertsonak
5. Garun paralisia duten pertsonak | 6. Bat-batean hartutako garun kaltea duten pertsonak
7. Buruko gaixotasuna duten pertsonak



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

## 2. PRESTAZIOAK

PRESTAZIO EKONOMIKOAK
<b>13/1982 Legean aitortutako prestazioak (MIGIL)</b>
Osasun laguntza eta farmaziako prestazioa.
Gutxieneko diru-sarrera bermearen sorospena.
Hirugarren pertsona bati laguntzeko sorospena.
Mugikortasun eta konpentsazio sorospena, garraio gastuetarako.
<b>Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko 39/2006 Legeari uztartutako prestazioak</b>
Zerbitzuarekin loturiko prestazio ekonomikoa.
Familiaren ingurunean zaintzeko eta profesionalak ez diren zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoa.
Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa.
Autonomia pertsonala errazteko laguntza ekonomikoak (Gizatek).
<b>Kotizazio gabeko pentsioak</b>
Elbarritasuneko kotizazio gabeko pentsioa.



## II. ERANSKINA: GIZARTE EKINTZAKO ESKUALDEETAKO ZONA ETA UDALERRIAK

Hurrengo taulak Gizarte Ekintzako lau Eskualdeetako zonifikazioa xehatzen du, hura eratzen duten zonak eta udalerriak zehaztuz:

GIZARTE EKINTZAKO ESKUALDEAK, ZONAK ETA UDALERRIAK	UDALERRI KOP.
<b>1. BILBAO</b>	<b>1</b>
<b>2. ESKERRALDEA-ENKARTERRIAK</b>	<b>20</b>
<b>2.1. MARGEN IZQUIERDA</b> Portugalete, Santurtzi, Sestao.	<b>3</b>
<b>2.2. BARAKALDO</b> Barakaldo	<b>1</b>
<b>2.3. ZONA MINERA</b> Abanto y Ciérvana, Muskiz, Ortuella, Valle de Trápaga-Trapagaran, Zierbena.	<b>5</b>
<b>2.4. ENCARTACIONES</b> Alonsotegi, Artzentales, Balmaseda, Galdames, Gordexola, Güeñes, Karrantza Harana, Lanestosa, Sopuerta, Trucios-Turtzioz, Zalla.	<b>11</b>
<b>3. IBIAIZABAL- NERBIOI</b>	<b>34</b>
<b>3.1. DURANGOALDEA</b> Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Otxandio, Zaldibar.	<b>13</b>
<b>3.2. ARRATIA</b> Amorebieta-Etxano, Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa, Ubide, Zeanuri.	<b>10</b>
<b>3.3. BASAURI-ETXEBARRI-GALDAKAO</b> Basauri, Etxebarri eta Galdakao.	<b>3</b>
<b>3.4. NERBIOI</b> Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Orozko, Ugao-Miraballes, Urduña-Orduña, Zaratamo, Zeberio.	<b>8</b>



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO  
ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013**

GIZARTE EKINTZAKO ESKUALDEAK, ZONAK ETA UDALERRIAK	UDALERRI KOP.
<b>4. BUSTURIA-URIBE</b>	<b>57</b>
<b>4.1. URIBE</b> Barrika, Berango, Erandio, Getxo, Gorliz, Leioa, Lemoiz, Plentzia, Sopelana, Urduliz.	10
<b>4.2. BUSTURIALDEA</b> Ajangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gaategiz Arteaga, Gernika- Lumo, Ibarangelu, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz, Sukarrieta.	19
<b>4.3. MUNGIALDE-TXORIERRI</b> Arrieta, Bakio, Derio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Larrabetzu, Laukiz, Lezama, Loiu, Maruri-Jatabe, Meñaka, Mungia, Sondika, Zamudio.	15
<b>4.4. LEA-ARTIBAI</b> Amoroto, Aulesti, Berriatua, Ea, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz, Ondarroa, Ziortza-Bolibar.	13



### III. ERANSKINA: GARATUTAKO METODOLOGIA

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailaren Plan Estrategikoarekin (2008–2011) bat etorritz, Plan hau Bizkaian gaigabezia duten pertsonen ordezkartza duten edota haiei zerbitzuak hornitzen dizkieten entitateen parte-hartzearekin landu da.

Zehazki, elkarrizketa prozesu bat eta laneko Mintegi bateratu bat egin dira. Bi jardun horiek haien ekarpenak jasotzera orientatu dira, sustapen eta arreta eredia, haren esparru kontzeptuala eta estrategikoa identifikatze aldera, taldearen egungo beharrak eta sortzen ari direnak nahiz prestazioen egungo mapa eta tipologia hobetzeko proposamenak, eskuratze sistema eta Administrazioarekiko harreman juridikoaren eredia identifikatze aldera.

Prozesuan parte hartu duten entitateak hauek dira:

- AFA, Bizkaian Alzheimer Gaixotasuna duten Pertsonen Familien Elkarte.
- APNABI, Bizkaiko autismoa eta beste autismo espektroaren nahasteak dituztenen gurasoen elkarte.
- **BILBO ETA BIZKAIKO GORREN ELKARTEA**
- ASPACE, Garun Paralisia dutenen Bizkaiko Elkarte.
- ATECE, Hartutako Burmuineko Gaitzaren Elkarte
- AVIFES, Gaixo Psikikoen eta haien Senideen Elkarte Bizkaitarra.
- **BIDAIDEAK**
- FEKOOR, Gutxitasun Fisikoa duten Bizkaiko Pertsonen Federazio Koordinatzailea.
- FEVAS, Gaigabezia Intelektuala duten Pertsonen Aldeko Elkarten Euskal Federazioa.
- **ARGIA FUNDAZIOA**
- **ERAGINTZA FUNDAZIOA**
- **EUSKAL HERRIKO DOWN SINDROMEAREN FUNDAZIOA**
- FUTUBIDE, Tutoretza Fundazioa
- GORABIDE, Gaigabezia Intelektuala duten Pertsonen Aldeko Bizkaiko Elkarte.
- GUFU, Giza Urgazpenerako Foru Erakundea.
- BTE, Bizkaiko Tutoretza Erakundea
- **LANTEGI BATUAK**
- ONCE, Espainiako Itsuen Erakundea
- ULERTUZ, Bizkaiko Haur Gorren Familien eta Lagunen Elkarte.
- URIBE KOSTA, gaigabezia intelektuala duten pertsonen aldeko Uribe Kosta Elkarte.



## IV. ERANSKINA: ERREFERENTZIA ITURRIAK

### ARAUTEGI ERREFERENTZIAK

#### NAZIOARTE MAILA

- Gaigabezia duten pertsonen eskubideei buruzko NBERen Konbentzioa.
- Gaigabezia duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioa Berresteko tresna, New Yorken egindakoa 2006ko abenduaren 13an. 2008ko apirilaren 21eko BOE.
- Kontseiluaren 2000/78/EE Zuzentaraua, 2000ko azaroaren 27koa, enpleguan eta lanbidean tratu berdintasunerako esparru orokorra finkatzeari buruzkoa.
- Europar Batasunaren Kontseiluaren eta Estatu Kideetako Gobernuen ordezkarien ebazpena 2008ko martxoaren 17an Kontseiluan bildu izan ondoren. Ebazpena Europar Batasunean gaigabezia duten pertsonen egoerari buruzkoa da (2008/C 75/01).
- Estatu Kideei Ministroen Batzordeak egindako (2006)5 Gomendioa, Europako Kontseiluak gaigabezia duten pertsonen parte-hartzea eta eskubideak gizartean erabatekoak izan daitezen egindako Ekintza Planari buruz: Gaigabezia duten pertsonen bizi kalitatea hobetzea Europan 2006-2015.

#### ESTATU MAILA

- 51/2003 Legea, gaigabezia duten pertsonen aukera berdintasunari, bereizkeria ezari eta irisgarritasun unibertsalari eta hori garatzeko araudiari buruzkoa.
- 39/2006 Legea, autonomia pertsonala eta mendetasun egoeran dauden pertsonen arreta ematekoa.
- 1971/1999 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, gaigabezia maila errekonozitu, aitortu eta argitzeko prozedurari buruzkoa.

#### EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGO (EAE) MAILAN

- 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuari buruzkoa.
- 15/2008 Legea, abenduaren 14koa, gizarte zerbitzuei buruzkoa.
- 10/2000 Legea, abenduaren 27koa, (Eusko Jaurilaritza), Gizarte Eskubideen Agiriari buruzkoa.
- 8/2008 Legea, ekainaren 25koa, Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legea eta Gizarte Eskubideen Agiriaren Legea aldatzekoa.



#### ERREFERENTZIA ITURRIAK

- 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, zeinaren bidez onartu baita Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea.
- 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.
- 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa.

#### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKO MAILA

- Bizkaiko Foru Aldundiaren 38/2008 Foru Dekretua, martxoaren 18koa, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren Araudi Organikoa onetsi duena.
- 4/2003 Foru Dekretua, urtarrilaren 28koa, Bizkaiko Lurralde Historikoan Gaigabezia-dunen Kontseilua sortzeko arautegia onesten duena.
- 119/2005 Foru Dekretua, abuztuaren 24koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena; beraren bidez Gizarte Ekintza Sailaren iradokizunen eta kexen araubidea arautu da erabiltzailearentzako arreta-unitatearen bidez.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 32/2006 Foru Dekretua, abenduaren 26koa, Gizartean esku hartzeko Etika Batzordeak Sortzeko arauak ematen dituena.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 24/2009 Foru Dekretua, otsailaren 17koa, Autonomia pertsonala sustatzeko orientazioa emateko eta sustapen horretan laguntzeko produktuak mailegatzeko foru zerbitzu publikoa (Gizatek) izeneko zerbitzua jasotzeko araubideari buruzkoa.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 23/2009 Foru Dekretua, otsailaren 17koa; horren bidez, besteren beharra duten edo urritasunen bat duten pertsonen laguntzeko produktuak 2009. urtean eskuratzeko diru-laguntzen deialdi publikoa onartu da.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 13ko 108/2006 Foru Dekretua; martxoaren 13ko 38/2007 foru dekretuak aldarazitakoa eta ekainaren 12ko 94/07 foru dekretuak luzatutakoa; honen bidez urrituak Bizkaiko Foru Aldundiaren zentroetan eta hark itunduetan edo kontratatuetan ematen den eguneko arretadun egoitzara, aldi baterako egonaldian, sartzeko sistema orokorra arautu da.
- 204/2003 Foru Dekretua, urriaren 28koa; beraren bidez ezinduak zaintzeko zentro propioetako, itunpekoetako, hitzarmenpekoetako eta kontratupekoetako prezio publikoak aplikatzea erabaki da eta haiei buruzko arauak garatu dira.
- 4/2001 Foru Araua, maiatzaren 30ekoa, Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Estatutuak aldatzeari buruzkoa.
- 9/2000 Foru Araua, Tutoretza Erakundea Sortzeari buruzkoa, 3/2003 Foru Arauak aldarazitakoa.



## GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO ETA BIZI KALITATERAKO PLANA. 2010-2013

### BESTE AUTONOMIA ERKIDEGO BATZUK

- 69/2008 Foru Dekretua, ekainaren 17koa, Gizarte Zerbitzuen Zorroa onartzen duena Nafarroako eremu orokorrean.
- 151/2006 Dekretua, uztailaren 31koa, Extremaduran Gaigabeziari Arreta Emateko Esparrua arautzen duena (MADEX).
- 151/2008 Dekretua, uztailaren 29koa, Kataluniako Gizarte Zerbitzuen Zorroa onartzen duena. 2008-2009.

### ARGITALPENAK, BIBLIOGRAFIA ETA BESTE ERREFERENTZIA BATZUK

#### GIZARTE EKINTZA SAILAREN (BFA) ARGITALPENAK/ERREFERENTZIAK

- Gizarte Ekintzako Plan Estrategikoa 2008-2011. Bizkaiko Foru Aldundia (BFA).
- Garraio Irisgarriaren Plan Estrategikoa Bizkaian (BFA).
- Gizarte Ekintza Sailaren (BFA) Memoria. 2009.
- Programen, zerbitzuen eta prestazioen gida. Gizarte Ekintza Saila, BFA. 2009.
- Administrazio prozeduren katalogoa (prestazioak, laguntzak eta diru-laguntzak). Gizarte Ekintza Saila. BFA. 2009.
- Bizkaiko Boluntariotzari buruzko Azterlana 2008. BFA.
- Gaigabezia intelektuala duten eta zahartze prozesuan dauden pertsonen beharrak. BFA.
- Erreferentziako gidaliburua gizarte, osasun eta hezkuntza zerbitzuentzat. Gorra eta itsuak. EIE-APSE.
- Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun egoera bizi duten pertsonen arreta emateko Legea. Zerbitzuak eta prestazioak martxan jartzea. 2009ko urtarrilaren 23a. Gizarte Ekintza Saila. BFA.
- Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa. Bizkaiko Foru Aldundia.

#### BESTELAKO ARGITALPENAK/ERREFERENTZIAK:

- Gaigabezia duten Pertsonentzako III. Ekintza Plana. 2009-2010. 2009ko uztaila. Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioa.
- Gaigabezia duten emakumeentzako Ekintza Plana 2007. Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa.
- Irisgarritasunaren I. Plan Nazionala 2004-2012. Paradigma berri baten alde, Guztiontzako Diseinua, erabateko aukera berdintasunerantz.





#### ERREFERENTZIA ITURRIAK

- Osasunaren Sistema Nazionalaren Estrategia Buruko Osasunean.
- Liburu Zuria: Espainian mendetasun egoeran dauden pertsonentzako Arreta. Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa.
- Gaigabeziei, urritasunei eta osasun egoerari buruzko inkesta 1999 (EDDE '99). Estatistikako Institutu Nazionala.
- Gaigabeziari, Autonomia Pertsonalari eta Mendetasun Egoerei buruzko Inkesta 2008 (EDAD 2008). Estatistikako Institutu Nazionala.
- Erroldaren Ustiapen estatistikoa. Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).
- Euskal Estatistika Erakundearen informazio estatistikoa (EUSTAT).
- Gaigabezia zenbakitan. Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa.
- Gizarte zerbitzuen eskari estatistika. Gizarte beharrak 2006. Emaitzen txosten orokorra. Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila.
- Funtzionamenduaren, Gaigabeziaren eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapena. OMEren FNS 2001.
- Bizi kalitatea. Hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte zerbitzuen profesionalentzako gidaliburua, Robert L. Shalock eta Miguel Angel Verdugorena.
- Buruko atzerapena. Definizioa, sailkapena eta babes sistemak. Buruko atzerapenari buruzko elkarte amerikarra. (AAMR 2002).
- Gaigabezia/mendetasuna. Balorazio eta sailkapen irizpideen baterakuntza. Miguel Querejeta González.
- Gaigabezia duten Pertsonen eskubideen Nazioarteko Konbentzioak Espainiako ordenamendu juridikoan duen inpaktua. Madrilgo Karlos III.aren Unibertsitateko Bartolome de las Casas Giza Eskubideen Institutua.
- Erakundeetatik ateratzea eta bizitza komunitatean - emaitzak eta kostuak: azterlan europar baten txostena. Mansell J., Knapp M., Beadle-Brown J. eta Beecham J. (2007).
- Gobernantza Europarra. Liburu Zuri bat. Europako Erkidegoetako Batzordea. Bruselas, 2001.7.25 COM (2001) 428 azkena.
- Aukera berdintasuna gaigabezia duten pertsonentzat: Ekintza plan europarra (2004-2010). Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari helarazitako komunikazioa.
- Programació territorial dels recursos d'atenció social especialitzada i domiciliària a Catalunya 2008-2012 i Bases per a la nova planificació (Departament Acció Social Catalunya).
- Edamat: A practical tool for effective disability mainstreaming in policy and practice.



**GAIGABEZIA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZERAKO**  
ETA **BIZI KALITATERAKO PLANA**. 2010-2013

- Guztiontzako Komunikazio Gidaliburua: komunikazio irisgarriko jarraibideak. Telefonía irisgarria.
- Etikaren eta Gizartearen aldetik Arduratsua den Kudeaketa Sistema. SGE21. Forética.
- Mendetasun egoeran dauden pertsonen gizarte babesa. Santiago González Ortega eta M. Gema Quintero Lima. La ley argitaletxea.
- Gaigabezia duten pertsonen gizarte irudia. CERMI.
- CERMI.es bilduma
- Telefonía Irisgarria Bilduma. CERMI.
- NBE Konbentzioa bilduma. CERMI.
- Gaigabeziaren eremuko Hirugarren Sektoreko entitateen webguneak (estatuaren eremua, EAE eta Bizkaia).
- Gaigabeziaren eremuan gizarte entitateen zerbitzu zorroak.
- Gaigabeziaren eremuan gizarte entitateen jarduera memoriak.
- Gaigabeziari buruzko Informazio Zerbitzua (SID), Osasun eta Gizarte Politika Ministerioarena.
- Hirugarren Sektorearen Behatokia, Bizkaia.
- Boluntarioentzako eta Gizarte Parte-hartzerako Agentzia (Bolunta).
- Berrikuntzaren Euskal Agentzia. Innobasque.